



Aire garbiaren alde

Durangairea plataforma sortu dute zenbait lagunek, kutsaduraz kezkatuta. Gaia berriro azaleratu da azken egunetan, fundizio bik bentzenoa isuri dutela egiaztatu denean. •2-3



**Irati Egurenak,
Miren Amurizak
eta Eider Eibarrek
'Tupust!' lanean
parte hartu dute**

Komikigintza | 'Tupusti' antologia feminista aurkeztu du artista talde batek. Proiektuan Irati Eguren ilustratzaile durangarrak, Miren Amuriza bertsolari berriztarrak eta Eider Eibar ilustratzaile zornotzarrak parte hartu dute. Ilustrazioak egin ditu Egurenek; Amurizak, ostera, berbak jarri dizkie Eider Eibarren irudiei. Komikigintzaren eredu tradizionalari buruzko hausnarketa da lan hau. • **18**



***“Biharamunean
esnatu eta txapela
ikustean hasi nintzen
lortutakoaz jabetzen”***

Aitor Elordi Txakartegi
Pilotaria • 20

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
 alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net







**ENBORRAK
EZPALETAN
ZATITZEKO
GAILUA**



BIRRINGAILUA



AREA



**MAILUEN
MOTOSEGA**

LEHIOR ELORRIAGA



Eukeni Bastida Barquero
Durangairea
plataformako kidea
Bergara | 1979

“Isurketak eta gure orografia kontuan izanda, haizea da gure alde dugun gauza bakarra”

Kutsadurak kezkatuta, Durangairea plataforma sortu dute eskualdeko zenbait lagunek

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Azken urteetan pil-pilean dagoen gaia da Durangaldeko aire kalitatearena. Hatsaren gaineko salaketak, neurketa datuen zabalpena, elkarretaratzeak... Durangon, herriarren kezka nagusia kutsadura dela ebatzi du udal inkesta soziologikoak. Kezkatuta dauden herritar batzuek Durangairea plataforma sortu dute, eta euren berri ematen zein egoeraz informatzen hasi dira. Bertako partaideetako bat da lurretan bizi den Eukeni Bastida.

Kutsadurari buruz asko berba egin da azken urteetan Durangaldean. Orain, plataforma sortzeko erabakia hartu duzue.

Pertsona lez ardura batzuk ditugu. Munduan dauzkagun gudekin batera, biktimarik gehien eragiten dituen arazoa airearen kutsadura da. Zer presentzia dauka horrek gure politikarien agendan? Bada, uste dugu ez dela nahikoa, ez diotela behar duen garrantzia ematen. Kaletik goazela, zelako hatsa dagoen sentitzen dugu, eta ez da hatsa bakarrik; batzuetan, arnasean ere kalte egiten dizula igartzen duzu. Politikariek airearen kutsadura lehentasunen artean mailarik gorenean ipini beharko luketela uste dugu.

Baina, airea lehenago ere ez al zen txarra? Edo, kutsaduragaz bizitzea onartuta geneukan?

Bizimodu hori eduki ahal izateko zerbait ordaindu behar duzun ustea, ezta? Plataforma moduan, gauza batzuei erantzun egin behar diegula uste dugu. Zuk ondo esan duzun lez, sentsazio hori beti eduki dugu. Igogailuko solasaldi bat izan liteke: “Zelako hatsa dagoen gaur. Ez dakigu zer arnasten dugun ere”. Baina Espainiako Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren webgunean begiratzen baduzu, lantegi bakoitzak zer isurtzen duen zerrendatuta dagoela ikusiko duzu: hainbat substantzia eta zenbat kilotan isurtzen den. Plataformatik hori jendearen begi aurrean ipini gura dugu. Minbizia kasu asko dagoela ere kaleko solasaldieta-ko bat izan ohi da. Baina, zenbat? Bada, guk topatu dugu. Madrileko Carlos III Osasun Institutuak egindako ikeketa batean, estatu osoko 8.000 herri aztertu dituzte, eta ikusi dute lotura zuzena dagoela industriaren isurketen eta minbizi tasaren artean. %17 handiagoa da Durangaldea lako leku industrializatuetan. Kontu horiei guztiei erantzuteko etorri da plataforma.

Enpresek neurri batzuk hartu ahal dituzte isuriak kontrolatu eta murrizteko, eta herritarrok ere bai trafikoa gutxitzeko. Oinarrian ez al dago bizi eredu bat?

Egia da garraio publiko gehiago

erabili ahalko genuela, horrela autoen erabilera gutxitzeko. Baina egia da ere, gaur egun badaudela teknologia batzuk autoan kutsatu barik mugitzeko. Auto elektrikoak hornitu ahal dituzu Oiz puntan dauden haize-errote-

“

Gure politikariek lehentasunen artean mailarik gorenean ipini beharko lukete airearen kutsadura”

■

“

Zelan da posible Jaurlaritzaren hasierako txostenak esatea ez dakiela bentzenoa nondik datorren?”

■

kin edo eguzki plakekin. Eta hori bada politikariek egin dezaketen gauza bat. Askotan gure gain jartzen dugu ardura, baina politika batzuk garatu ahal dira. Astelehenan, auto elektrikoen karga azkarrerako puntu bat inauguratu zuten Gasteizen. Baina zeinek inauguratu zuen? Arantxa Tapiak Josu Jon Imazegaz [Petronorreko presidentea]. Beraz, nor ipintzen dugu oiloak zaintzen? Petrolio saltzailearen esku lagako dugu zein abiaduran ezarriko ditugun energia garbiak. Modu horretan, jendearen osasunaren aldeko irizpideak ez dira lehen lerroan jartzen.

Ministerioak isurketak zerrendatzen ditu, berez legearen barruan eginkoak direnak. Lantegietatik datozen isurien artean, zerk kezkatzen zaituzte?

Ministerioaren arabera, Boroako zentralak metanoa, karbono dioxidoa, oxido nitrosoa... isurtzen ditu. Alcoak karbono dioxidoa, kadmioa, kloroa... Iurretako paper fabrikak karbono monoxidoa, amoniakoa... Fumbarrik sufrea, bentzenoa, hidrogeno zianuroa... Eta horrela segi daiteke lantegi askogaz. Durangaldean mendi altuez inguratuta gaude, eta bailaran 80.000 pertsona bizi gara. Isurketa horiekin guztiekin eta daukagun orografia kontuan hartuta, haizea da alde dugun gauza bakarra. Haizerik ez bada, biler, kutsadura arnastuko dugu.

Eusko Jaurlaritzak azken ikerketaren berri ematean azaldu du bentzenoa detektatu zutela Durangon, baina galdategiek ez dutela materia hori erabiltzeko ohiturarik. Horregatik, ikerketa zehatz bat egin zuen Fumbarri eta Funsan fundizioetan, eta, azkenean, isuria egiaztatu zuen. Baina lehendik datu ofizia-

letan bazegoen, ez al zen jakineko gauza?

Ni ere harritu egin naiz hori irakurtzerakoan. Iturri ofizialaren arabera, 2017an 249 kilo bentzeno bota zituen Fumbarrik airera. Zelan da posible Jaurlaritzaren hasierako txostenak esatea ez dakitela bentzenoa nondik datorren? Ministerioko datuetan, Durangaldeko galdategi guztietan agertzen dira bentzeno isurketak.

Durangoko Udalak neurriak ezartzea eskatu die galdategi biei, eta lasaitasun mezua igorri du, isurketak lege mugen barruan egon direlako.

Arduratzekoa iruditzen zait legealdi osoan arazoa ukatzen ibiltzea, eta amaitzeko hile bi falta

“

Iturri ofizialen arabera, 2017an 249 kilo bentzeno bota zituen Fumbarrik airera”

direnean txostenak eta zorroztasun mezua agertzea.

Aire neurketetan, kutsadura maila altuak egon direla salatu izan duzue. Ecologistas en Acción erakundearen ikerketek ere diote PM2,5 partikuletan Osasunerako Mundu Erakundeak aholkatutako mugak gainditzen direla Durangaldean.

Urtean zehar, aste batzuk kutsadura maila altuagaz pasatzen ditugu. Batzuetan, estatuko txapeldunak ere izaten gara; Du-

rangaldean markatzen ditugu daturik altuenak, Madrilén zein Bartzelonan baino gehiago. Mugekin zorrotzagoak izatea pentsatu beharko genuke. Bestalde, grafikoetan agertzen diren hutsune edo datu faltak, non daude? **Pinuen gaixotasunari aurre egiteko kobre oxido bidezko fumigazioaren aurka agertu zarete. Espainiar Gobernua ez du eman airez fumigatzeko baimenik, eta lurretik egingo dute.**

Eragin dugun klima aldaketak landareak gaixotzen ditu, eta izurriteak azkarrago hedatzea dakar horrek. Orain sekulako arazoa daukagu basoetan, eta era jasangarri batean aurre egin beharrean, ez dugu kontuan hartu pertsonen eta mendien osasuna. Gauza hauek guztiak egin aurretik, jendearen osasunari begira irtenbiderik onena zein izan daitekeen aztertu behar dela uste dugu, eta hori ipini beste faktore guztien gainetik. Europan badaude leku batzuk basoak beste era batean kudeatzen dituztenak; ez dute monokultiboa garatzen. Bestalde, ezin dena ulertu da, horrelako arazoa dugun herri bateko alkateak udal lurrak eskaintzea fumigazio esperimental baterako.

Durangon herritarren kezka nagusia da kutsadura, udal inkestaren arabera. Salaketa lanak izango du zerikusirik, ezta?

Igartzen dugu jendea kontzientziatuta dagoela, gehiago arduratzen dela. Ez da dena plataformaren lanari esker, baina lorpen bat dela uste dugu. Plataforma dagoenetik, gure argitalpenek

zabalpena dutela ikusi dugu. Gainera, jendea aktiboago dago; edozeinek ematen du datuen abisua. Agintariei presio egin behar diegula uste dugu, lehenik eta

“

Boroako zentralak metanoa, karbono dioxidoa, oxido nitrosoa... isurtzen ditu”

—

behin guri informazioa emateko, eta gero gure osasunaren alde egiteko. Zergatik ez dute kalean panel bat ipintzen, egunean daudden isurketa mailen berri emateko? Akaso egun batzuetan ez da osasuntsua korrika egitera joatea. Presio hori igarri dutenean, zerbait mugitu dira. Aldaketa modura, esango dizut, Arriandi eta Berna auzoen artean bizi garenok ez ditugula lehengo gaue-tako isurketa bortitzak nabaritu. Leihoak zarratuta ere igartzen zen kutsadura, lotan geunden bitartean. Aldaketa hori ere presioaren lorpen bat dela uste dut.

Aurrera begira, zer asmo duzue? Zer ekintza egingo duzue?

Aurkezpenak egingo ditugu, eta kalean mahai informatiboak ipiniko ditugu. Aurretiaz, elkarretaratzeak egin izan ditugu, eta ez dugu horrelakorik deskartatzen. Medikuren bategaz berba egin gura dugu, jendearen aurrean informazioa eman dezan. Bestalde, edozein eragilegaz batzartzeko prest gaude, ekarpenak egiteko helburuz.

Fundizio biri bentzenoa murriztea eskatu diete

Ikerketa baten emaitzak jakitean, Eusko Jaurlaritzak neurriak exijitu dizkie Fumbarri eta Funsan enpresei

DURANGALDEA • M.O.

Eusko Jaurlaritzak isuriak murrizteko neurriak exijitu dizkie Fumbarri eta Funsan enpresei. Ekintza Plan bat aurkeztu beharko dute, eta gero berriro aztertuko du Jaurlaritzak.

2017an eginiko ikerketa batean, Jaurlaritzak erkidegoan baino maila altuagoak neurtu zituen Durangon, bentzenoaren, toluenoaren eta estirenoaren kasuan. Bertako aktibitate industrialaren eta haizearen ezaugarriak kontuan hartuta, galdategi bitan zentratu zuten ikerketa. Prentsa oharrean ez zuten argitu zeintzuk ziren, baina ANBOTOk emaitzen txostena eskuratu du, eta Fumbarri eta Funsan lantegiak

izan dira ikertutakoak. Fumbarriren kokapenagatik, eragina gehiago igartzen ei da hego-mendebaldeko haizea dabilenean, eta gauez. Emaitza altuak izan arren lege barruan daude; horregatik, udalak lasaitasun mezua helarazi du, enpresei neurriak eskatzeaz batera.

Jaurlaritzaren arabera, ez da erregistratuta egon galdetegi materia horiekin lan egiten dutenik. Egiaztatu dute piezen galdaketa prozesuan sortzen direla, poliestireno hedatua berotzean. Hala ere, Espainiako Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren webgunean (www.prtr-es.es) badaude aurreko urteetako datu batzuk.



Jaurlaritzaren furgoneta, airea neurtzekoa, Tabiran, Funsanen inguruan.

Urkiola, kutsaduratik salbu ez dagoen parke naturala

2018an, Urkiolan 72 egunetan pasatu zen ozono troposferikoaren inguruan OMEk ezarritako muga

DURANGALDEA • M.O.

Ecologistas En Acción erakundeak ikerketak egiten ditu urtero estatuan, airearen kalitatea baloratzeko. Oraindik ez ditu 2018ko datu orokorrak eman, baina bai ozono troposferikoari dagokion txostena. Esanguratsua da Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) aholkatutako muga gainditu egin dela Urkiolan. Erkidegoko daturik txarrenetakoak dira.

Badu zerikusia eskualdeko aireagaz, trafikoaren eta industriaren kutsadura eguzki izpiekin nahastean sortzen da eta.

Iaz, 72 egunetan pasatu zen 100 mikrogramo metro kubikoko muga Urkiolan. Ecologistas En Accionen iritziz, ez litzateke 25 egunez pasatu beharko. Europako arautegiak ere egun kopuru hori ezartzen du, baina muga 120 mikrogramotan ipinita.



Durangon hainbat elkarretaratze egin dituzte azken urtean.

“Berriro ere ilusioa sortuko duen proiektu bat behar dugu Durangon”

Elkoroiribek uste du estazioko eremua "izugarritzko aukera" dela etorkizunerako, eta ez du gura luzaroan geldirik egotea



Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJren alkategaia
Durango | 1975

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

**EAJk aurkeztutako talde berritua-
ren zerrendaburua da Mireia Elko-
roiribe. Orain lau urte bozkatuena
izan zen alderdiagaz amaitu du
ANBOTOK Durangoko alkategaiekin
izandako elkarriketa sorta.**

Zelan hartu duzu alkategai ardura?

Ilusioz eta gogotsu hartu dut erron-
ka. Errespetu handiz hartu dut,
Durangon alkategai izatea erronka
handia da eta.

**Orain arte, hainbat kargu eduki di-
tuzu Jaurilaritzan. Zer ekarpen egin
ahal diozu udalari?**

Askotan galdetu izan diot neure
buruari ea zergatik ez naizen gai
batean espezializatzen. Baina orain
konturatu naiz ibilbide hori oso on-

do datorkidala momentu honetan.
Nire ibilbidea garraio arloan egin
dut batez ere, eta nire lanpostua
han dago, Euskal Trenbide Sarean.
Garraio zuzendari ibili ostean,
Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura,
Gazteria eta Kirola Sailean egon
nintzen, eta, azkenaldian, Osasun
Sailean. Horrek denak oso ikuspegi
globala eman dit, eta uste dut ibilbi-
de egokia dela udalerako, udalean
arlotu guztiak lantzen dira eta.

**Udal inkestaren arabera, zure ze-
rrendak irabaziko du. Legealdian
PSE-EEgag edukitako gobernu akor-
diora berretsiko zenuke?**

Ez dugu ezer lotuta, eta aukera guz-
tiak aztertzeke jarrera irekia dugu.
Lehenengo, emaitzek zer dioten
ikusiko beharko dugu.

**Estazioko planari 21 alegazio egin
zenizkioten alderdiaren izenean, irai-
lean. Zer aldatuko zenuke?**

Etorkizunera begira aukera izuga-
rria daukagula ikusten dut. Argi
dudana da ez dudala beste 15 urte
pasatzerik gura eremua geldirik
egonda. Aukera hori aprobetxatu
egin behar dugu. Berriro ere ilusioa
sortuko duen proiektu bat behar
dugu Durangon, eta adostasuneko
izan dadila. Durangarrek euren
iritzia entzutea eskatu dute, eta
hori kontuan eduki behar da. Parke
baten nahia ere adostasun zabale-
koa da, eta trenbidearen trazatua
lehenbailehen berreskuratu behar
da. 18 pisuko etxeak? Bada, uste dut
badela garaia hori berrikusteko.
Gure helburua da altuera hori baja-

tzea, Jaurilaritzagaz akordio batera
helduta; ezinbestekoa da akordio
hori.

**Beraz, galdeketa egitearen alde
zaude? Barikuan, Erabakik berriro
aldarrikatu zuen galdeketa, manifes-
tazio bat eginda.**

Bai. Herritarren eskubide bat da,
parte-hartze mekanismo bat. Gu
ados gaude. Hori bai, galdeketa ber-
me juridiko guztiarekin egin behar
dela deritzogu. Eta horretan lan
egiten dabilta udalean.

**Galdeketa egin bitartean, ez al litza-
teke plana eten beharko?**

Proiektua, momentuz, geldirik
dago. Beste gauza bat da lan txikiak
egin izana, geltokiaren sarrera eta
ingurua egokitzeko. Durangarrok
akordio batera heldu beharra dau-

kagu, eta ez beste hainbat urtez
proiektua geldirik egotea.

**Udalean zer proiektu garatu gura
duzue lehentasun moduan?**

Hainbat elkarte eta erakunderen
iritzia entzun dugu. Durangoren
lidergoa eskualdean, Bizkaian eta
Euskadin indartu gura dugu. Bere
kokapen estrategikoa aprobetxatu
eta ekonomia indartzeko zentro
bat bultzatu gura dugu; horregaz
lotuta, Landako Gunea sustatu gura
dugu, eta merkatu plaza indartu.
Horrez gainera, bizi-kalitatea ho-
betuko duten parkeak garatu gura
ditugu; Ezkurdi plaza birgaitu eta
estazioko guneagaz lotuko dugu.
Azken batean, sare berde bat osatu
gura dugu. Horretarako, garran-
tziatsua da trenbideko trazatua

“
**Estazioko etxeen
altuera baxatzea
da gure asmoa,
Jaurilaritzagaz akordio
batera helduta”**
—

oinezkoentzat eta bizikletarientzat
egokitzea. Durango mugikortasun
iraunkorrean erreferente bihurtu
gura dugu, aipatutako eremuak
berreskuratuta eta bidegorriak
indartuta.

**Euskararen erabilera %22,7koa da.
Zelan indartu daiteke?**

Azken urteetan, euskararen ezagu-
tza asko handitu da, baina erabile-
ran ez da aurrerapauso garrantzi-
tsurik eman. Euskararen erabilera
kalean, lantokian, udalean eta aha-
lik eta lekuri gehienetan bultzatu
gura dugu. Aukera on bat kirolean
ikusten dugu, eta ikastetxeekin,
eragileekin eta euskara kontseilu-
gaz batera bultzatu gura genuke.

**Durangon hainbat zerbitzu eskain-
tzen dira parekidetasun arloan. Bai-
na eraso matxistek ez dute etenik.**

Durango aitzindaria izan da He-
rritarren Akordioa sinatuta. Herri-
tarren partetik ere sentsibilizazio
handia dago. Eraso bakoitza kezka
bat da guretzat, eta lanean jarraitu-
ko dugu. Andragunean lan garran-
tziatsua egiten dute, eta eskaintza
indartzeko asmoa dugu.

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko apirilaren 5a
17. urtea - 758. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba
Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen
Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta
Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA


DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Larri dauden presoak etxeratzearen alde mobilizatzer deitu du Sarek

DURANGO • M.O.

Sarek deituta, gaixotasun larria duten presoek etxeratzea eskatuko dute domekan Durangon. Zeharkaleko eta Andra Mariko zubiak lotuko dituen elkarretaratze bat egingo dute, 13:00etan. Apirilaren 7a Osasunaren Nazioarteko Eguna da, eta horren harira deitu dute mobilizaziora. Gaixo larrien zerrendan Gorka Fraile durangarra dago. Bestalde, Asier Aginako urtarilean askatu zuten, ebakuntza zail baten ostean.



Durangon Haur eta Gazteria Plana sortzea proposatu du Herriaren Eskubideak

DURANGO • M.O.

Haur eta Gazteria Plana sortzea eta arloa garatzeko teknikari bat jartzea proposatu du Herriaren Eskubideak. Francesco Tonucci psikopedagogo ezagunaren *Haurren Hiria* proiektua ardatz hartuta, ume eta gazteen nahiak entzunda eurentzako espazioak berreskuratzea da hauteskundeei begira aurkeztu

Esparru libreko kirolguneak egitea beharrezkotzat jo dute, skate edo parkourra praktikatzeko

duen ildoetako bat. "Haurrek aske jolastea gura genuke, bere herrian seguru sentitzea", adierazi du Julian Rios alkategaiak. Gainera, esparru libreko kirolguneak egitea beharrezkotzat jo dute, hala nola skate edo parkourra praktikatzeko.

San Agustingo ospitale zaharrean ludoteka eta gaztelekua zabaltzea ere proposatu dute, besteak beste.

Manifestazio jendetsu bategaz, galdeketaren aldeko eskaerari indarra eman dio Erabakik

Ehunka lagunek parte hartu zuten, joan zen barikuan, herri kontsultaren alde eginiko lehen mobilizazioan



Manifestazioaren irudiak: goian, estazioko eremua zeharkatzen, eta behean, Alde Zaharretik igarotzen.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Ehunka lagunek parte hartu zuten, barikuan, estazioko planari buruzko galdeketaren aldeko manifestazioan. *Erabaki nahi dugu* lemapean, Durangoko kale nagusiak zeharkatu zituzten, tartean estazioko eremua bera ere bai. Manifestazio jendetsu horregaz, kontsultaren

Erabaki: "18 pisuko dorreak eraiki ala ez eraiki, ezin da gutxi batzuen erabakia izan"

eskaerari indarra eman dio Erabaki plataformak.

Udalean, galdeketa antolatzeke batzorde bat lantzen dabilta, baina oraindik ez dago eperik. Barikuko manifestazioaren amaieran, berriro ere galdeketa egitea aldarrikatu zuten. "Durango erdian egin gura dituzten 18 pisuko bost dorreak eraiki ala ez eraiki, ezin da gutxi batzuen erabakia izan. Proiektu honek guztiz baldintzatuko du etorkizuneko Durango, eta, inposatu beharrean, herriari galdetu beharra dagoela ozen esan gura dugu".

Manifestazioan EH Bildu eta Herriaren Eskubideko ordezkariak egon ziren, baita PSE-EEko Mauricio Garcia zinegotzia ere.

EH Bilduk esan du alkatearen soldata %45 murriztuko duela, gobernura helduz gero

DURANGO • M.O.

EH Bilduk azaldu du gobernatuz gero alkatearen soldata %45 murriztuko duela, urtean 73.800 eurotik 42.000ra pasatzeko. Koalizioaren esanetan, estatuko soldatarik altuenetako bat da Durangoko alkatearena. Liberazioetan eta dietetan murrizketak eginda, 555.000 euro aurreztuko lirate-

keela dio. Diru hori "politika sozialerantz" inbertitzeko asmoa du.

Bestalde, zerrendaren "aniztasuna" nabarmendu du Ima Garrastatxu alkategaiak. Partaidetza "nortasun ikur" izango dute. "Guztionez hobe izango den Durango bat gura dugu eta hori herritarrekin batera gobernatuz lortzen da soilik", esan du Garrastatxuk.



Domekan egin zuten hautagaien zerrenda osoaren aurkezpena.



Durangoko Merinaldearen Armaria
Municipalidad de la Merindad de Durango



Durangaldeko Behargintza
Tribuna Corporativa
Ayuntamiento de Durango



Bizkaia
Foru Aldundia
deputación foral

ENPLEGAGARRITASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA

Langabeentzat %100 diruz lagundutako ikastaroak:

Antolaketa-gaitasunak, pertsonalak eta harremanei lotutakoak
Publizitate digitala • Komunikazio digitala • Kudeaketa digitala

Antolaketa-gaitasunak, pertsonalak eta harremanei lotutakoak
Orga jasotzailea une 58451 • Plataforma jasotzailea une 58923
• Billegia kudeatzea eta logistika

PROGRAMA HAU BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILAK FINANTZATU DU

Izena emateko azken eguna
Maiatzak 10

Informazio zehatzagoa Durangaldeko Behargintzan
Tel.: 94 623 25 22 prestakuntza.durango@bizkaia.org
www.mdurango.org

Durangoko Institutuko ikasleak Kulturaldian murgilduta daude

DURANGO • M.O.

Joan zen asteaz geroztik, Durangoko Institutuan Kulturaldia egiten dabilta. "Institutuko ikasle guztientzat euskal kulturaren murgiltzeko aukera anitzak" eskaintzea da helburua, antolatzaileen esanetan. Oihana Azkorbebeitia mendi korrikalariaren berbaldi batez hasi

Egunotan, irteera kulturalak eta literatura emanaldiak izango dituzte aukeran

zuten egitaraua, martxoaren 28an. Egunotan, irteera kulturalak eta literatura emanaldiak izango dituzte aukeran; adibidez, Antton Kazabon idazlea etorriko da apirilaren 11n.

Bestalde, kutsu solidarioa ere badu Kulturaldiak. Izan ere, eguaztenean, odola emateko autobusa egon zen bertan.

Gasteiz-Durango autobusa ezohiko lekuetan geratzea eskatu daiteke gauez

OTXANDIO • J.D.

La Union enpresak kudeatzen duen Gasteiz-Durango lineako autobusa gauez ezohiko tokietan geratzeko eskatu ahalko dute emakumeek eta adin txiki-koek. Zehazki, geraleku osagarri hori Elizabarrin egongo da. Otxandioko Udalak aldundiagaz eta autobus konpainiagaz eta adostu duen aldaketa da.

Geraleku horiek ez dute balioko autobusera igotzeko. Hau da, jaisteko bakarrik izango da eta autobus barruan doan

Gauez bakarrik eskatu daiteke; esaterako, apiriletik urrira bitartean, 21:00etatik aurrera

eskatu beharko dio gidariari. Gaututakoan bakarrik eskatu daiteke: azarotik martxora bitartean, 18:30etik aurrera, eta, apiriletik urrira bitartean, 21:00etatik aurrera.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

lñaki Usabel hamarkada luzez aritu da Abadiñoako basoko brigadan lanean. Haserre dago udalagaz, Zelaieta oinezkoentzat egiteko planaren baitan Ferialeku plazako zuhaitzak aldatu egingo dituztelako. Herritarrek egon behar duten parke baterako, zuhaitzik egokiena bananondoa dela defendatzen du Usabelek.

Zergatik zaude haserre?

Parke berria egiteko asmoa dute hemen, eta, horretarako, dauden arbolak kendu gura dituzte. 50 kilometroko inguruan ez dago honelako parkerik duen herririk. Platanero hauek [Platanus Hispanica] 100 bat urte dituzte. Hiriburu guztietan daude honelako arbolak, Donostian, Bilbon eta Gasteizen, adibidez, eta arbolarik gogorrena eta apurtzeko arriskurik gutxien duena da. Ni hemen bizi izan naitzen ia 70 urteetan ez da arazorik

"Hirigintza egiteko beste modu bar beharrezkoa da, arbolei errespetua erakutsiko diona"

"Arbolak ez daude gaixorik, azalari begiratu besterik ez dago horretaz konturatzeko"

egon. Lehenago ere, ingeniariak zerbaitegatik sartuko zuten parkeetan arbola mota hau. Bazekiten segurtasun aldetik gogorra zela. Lehen, jakituria gehiago zegoen lurrrari buruz. Berez, hau da ferialeku originala. Ehun urteko historiagaz horrela amaitzea ere...

Zergatik kendu, orduan?

Arbolei sekula ere ez zaie bizi-

"Sekulako astakeria da arbola hauek guztiak kentzea, are gehiago fundizioa hemen alboan dagoela kontuan hartuta"

Zelaieta oinezkoentzat bilakatzeko obrak apirilean dira hastekoak. Besteak beste, bertan dauden zuhaitzak aldatzeko asmoa du udalak; argazkikoa ezik gainontzekoak botako dituzte



Usabel, Ferialeku plazako bananondo artean.

tza zikloa moztu behar. Adibide moduan, Donostia jarriko dizut. Kontxako pasealekuan dauden arbolak guztiz ustelduta eta apurtzekotan daude, baina torlojuen eta ebatuta daude. Eta hil arte ez dituzte aldatuko. Horixe da jarraitu beharreko mentalitatea. Hirigintza egiteko beste modu bat da, zuhaitzari errespetua erakusten diona. Zuhaitz hauek oxigeno asko sortzen dute, eta hori oso garrantzitsua da herri batentzat. Se-

kulako astakeria da arbola hauek kentzea, are gehiago fundizioa hemen alboan dagoela kontuan hartuta. Inguru guztia zuhaitz hauek mantentzen dute. Azken 33 urteetan ni ibili naiz hauek inauten, eta teknikariak askotan argudiatu dute, adibidez, arbolak okertuta daudela. Hain zuzen ere, horixe da parkea bera polit egiten duena. Natura ez da perfektua, eta bizi araua da guztia berdina ez izatea.

Gaixorik daudela diote.

Hori gezurra da. Azalari begiratu besterik ez dago. Aparte, parke berria ezartzean, nork garantizatuko du parke berrian gerizpea egongo dela? Zein arbola sartuko dute, gogorragorik ez bada? Parke baterako, ez dago hau baino erresistenteagorik. Lorategi botaniko bat egin behar bada, ados, baina, ostantzean, hauxe da onena. Hau sei-zazpi urtean inauten da, eta segituan egiten da itzala.

Ane Etxeita izango da Garaiko Herriko Taldearen alkategaia hauteskundeetan

Etxeitak 30 urte ditu eta azken legealdian ere zinegotzi izan da herriko udalean



Garaiko Herriko Taldearen zerrenda osatzen duten kideak, talde argazkian.

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Ane Etxeita Zabala izango da Garaiko Herriko Taldearen alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan. Etxeitak 30 urte ditu eta gaur egun ere zinegotzi da herriko udalean.

Beragaz batera, honako hauek egongo dira udalerako hautagaien zerrendan: Lazaro Milikua, Lander Loizate, Goiatz Etxeita, Jon Larruskain, Alazne Unzueta, Zortza Etxeita, Juan Mari Berasaluze, Jose Ramon Zabaleta eta Alberto Astorkia.

Ane Etxeitak Gontzal Sarrigoi-tiaren erreleboa hartuko du talde independentearen zerrendaburu lez. Sarrigoitia 2007tik izan da alkate, Herriko Taldeak hauteskundeak irabazi eta udal gobernua hartu zuenetik.



Lehendakariak ere parte hartu zuen eguerdiko ekitaldi instituzionalean.



Mari Ardanza lekukoa, lore eskaintza egiten. Jende asko elkartu zen Gerediagak eta Kriskitinek prestatutako ekitaldian.



Bonbardaketaren biktimak oroitu, eta justizia eskatu dute Martxoaren 31n

Durangoko ekitaldietan, Esteban Cuevas lekukoak egin zuen lore eskaintza goizean, eta Mari Ardanzak iluntzean; Irigorasek "egia eta justizia" eskatu zituen Durangorentzat

DURANGALDEA • M.O. / J.D.

Domekan, 82 urte bete ziren faxistek Durango eta Elorrio bonbardatu zituztenetik, eta egunean zehar biktimak oroitzeko ekitaldiak egin zituzten. Durangon Benita Uribarrena parkean eguerdian eginikoan, Esteban Cuevas lekukoak eta ordezkari politiko ugari egin zuten lore eskaintza. 1937ko martxoaren 31n Durangon "izua"

bizi izan zela nabarmendu zuen Aitziber Irigoras alkateak. "Lurperatu gura izan ziren oroitzapenak, eta herri honen esperantza eta etorkizuna ere bai". Horren aurrean, Durangok "egia eta justizia" merezi dituela aldarrikatu zuen. Udalak egileen aurkako kereila ipinita dauka epaitegietan, baina, momentuz, atzera bota dute. Auzitegi Kosntituzionalean errekurrituta dago orain.

Iluntzean, emozioz bete zen Andra Maria, Gerediaga eta Kriskitinen eskutik. Mari Ardanza lekukoak lore eskaintza egin, eta bere biloba Idoia Bediagak abestu zuen.

Elorrion, udalak eta Laumunarrrieta elkarteak antolatu zuten ekitaldia, eta lankidetza hori eskertu zuen Idoia Buruaga alkateak. "Etorkizunera begira, ezinbestekoa da iragana ezagutzea", esan zuen.



Elorrion ekitaldiaren ostean ateratako argazkia, murla dagoen lekuan.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 10 (asteazkena) 18:30
Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

Bainuontziak kendu
eta duxak jartzeko
diru-laguntzak 80
urtetik gorakoentzat

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO
Zornotzako Udalak diruz la-
gunduko ditu etxebizitzetan
bainuontzia kendu eta duxa
jartzeko egiten diren lanak.
Asteleheneko udalbatzarrean,
aho batez onartu zuten lagun-
tzak erregulatuko dituen orde-
nantza. Zehazki, 80 urte baino
gehiago dituztenek jasoko dute
diru-laguntza hau. Horretarako,
Zornotzan erroldatuta egon
behar dute eta ez dute ez 15.000
euro baino gehiago eduki behar

**Guztira, etxebizitza
bakoitze gutxienez 300
euro eta gehienez 1.850
eskuratu ahalko dira**

ondare higigarrietan, ez biga-
rren etxebizitza bat jabetzan.

Guztira, etxebizitza bakoit-
zak gutxienez 300 euro es-
kuratu ahal izango ditu lanak
egiteko, eta gehienez 1.850 eu-
ro. Zenbatekoa zehazterako
orduan, eskatzailearen eta ez-
kontidearen baliabide maila
hartuko dute kontuan.

Diru-laguntza hau eskuratzeko
eskabideak Herritarren Arre-
ta Zerbitzuan aurkeztu ahal
izango dira, dagokion deialdia
onartu ostean.

Eskolaren eta inguruko instalazioen beharritzanei erantzuteko,
lau fasetan banatutako proiektua jarriko dute martxan Elorrioren

Egitasmoak polemika piztu du Elorrioko Udalean; EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak kreditu
aldaketaren alde egin zuten joan zen asteko bilkuran, eta EAJ, oster, abstenitu egin zen



Eskola eta inguruko instalazioak hobetzeko, hainbat lan egingo dituzte Elorrioren.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Elorrioko eskola publikoan zein
inguruko instalazioetan dauden
beharritzanei erantzuteko asmoz,
lau fasetan banatuko den proiektu
bati emango diote hasiera datozen
asteetan. Dani Palacios zinegotziak
adierazi zuenez, lehenengo fasean
bide bat zabalduko dute, San Jose
kaletik eskolara. "Gaur egun gaz-
tetxoak landa batetik gora igotzen
dira, eta gure asmoa bide bat zabal-
tzea da", adierazi du Palaciosek.

Bigarren fasean, eskola azpiko
solairua konpondu eta bertan 6
aldagela berri eta eskolako umeek
erabiltzeko hainbat gela egingo di-
tuzte. "Gaur egun hezetasun izuga-

**Datozen asteetan,
lehenengo fasean, bide
bat zabalduko dute, San
Jose kaletik eskolara**

rria dago solairu horretan, eta lan
hauekin arazo horiek konponduko
ditugu", esan du Idoia Buruaga alka-
teak. Horrez gain, eskola inguruko
irisgarritasuna hobetuko dutela
adierazi zuten. Bigarren faseko
lan hauek udan egingo dituzte eta
572.000 euroko aurrekontua izan-
go dute.

Hirugarren eta laugarren faseko
lanak aurreragorako utziko dituz-
te. Hirugarren fasean, harmailak
jarriko dituzte errugbi-zelaian, eta

laugarren fasean, estalpea umeen-
tzako jolasgunean, besteak beste.

"Gobernu taldeak onetsitako
lehenengo proiektuaren porrotari
emandako konponbidea da hau.
Korrika eta gaizki, hauteskunde-
atarietan, alde bakarrek erabakia

**Bigarren fasean, eskola
azpiko solairua konpondu
eta 6 aldagela egingo
dituzte, besteak beste**

**572.000 euro jarri
dituzte aldagelak
ipintzeko eta
irisgarritasuna hobetzeko**

hartuta landuko da", kritikatu
zuen, ohar bidez, EAJk. Gainera,
hainbat kreditu aldaketekin, sobe-
rakina 1.600.000 eurotik 700.000
eurora pasatuko dela esan zuten
jeltzaleek.

"Bilkuran ez zitzaizena hain txar-
to iruditzen, gaur Elorrioren aurka-
ko eraso bilakatu da ia-ia", erantzun
dute gobernu taldekoek. Gainera,
EAJko Joseba Mujika batzordeetan
proposamenik egiteko ez dela "gai
izan", eta planteatutako propo-
samenak "publikoki suntsitzera"
mugatu dela salatu dute.

EH Bilduren zerrendan bigarren joango
da Endika Jaio, gaur egungo alkatea

Aurpegi berriak ere badaude, zerrendan laugarren doan Garazi Sarrionandia esaterako

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Ainara Otxotorena alkategaiagaz
batera udal hauteskundeetara aur-
keztuko duen hautagaien zerrenda
jakinarazi du Mañariko EH Bilduk.
Bigarren tokian Endika Jaio dago,
gaur egungo alkatea. Garazi Etxe-

barria ere, zerrendan hirugarrena,
udaleko zinegotzia izan da lege-
gintzaldi honetan. Laugarrenean
aldiz aurpegi berri bat dago: Garazi
Sarrionandia. Jose Ramon Uriarte,
Unai Uribarrik, Ainhoa Alzagak,
Arkaitz Elexpek, Aitziber Areitiok

eta Karmelo Bilbaok osatzen dute
zerrenda. Batzuek udaletik eta
besteek herriko elkarteetatik,
zerrendako kide guztiek "Mañaria
hobetzeko eta aurrera eramateko"
lan egin dutela azaldu du mañariko
EH Bilduk ohar batean.



Lehen lerroan, Ainara Otxotorena alkategaia; bigarrean, Endika Jaio; eta, ostean, gainerako hautagaiak.

Bertso saio solidarioa Palestinako
errefuxiatuen saskibaloia taldea
udan Euskal Herrira etorri dadin



'Real Palestine Youth' taldeko neskek.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Ekain amaieran, 'Real Palestine
Youth' taldeko 11 neska etorriko
dira Euskal Herrira, aste birako.
2017an Erroman eta Beiruten
sortutako proiektuaren hiruga-
rren aldia Euskal Herrian egingo
dute, Oihana Alberdik bultzatuta.
Proiektuaren asmoa elkartasu-
nak muga fisiko eta mentalak
apurtzeko duen gaitasuna azpi-

marratzea dela esan du Alberdik.
Ekimena aurrera eramateko,
dirua biltzen dabil berriztarra.
Esaterako, bihar, 19:00etan, ber-
tso saioa egongo da Berrizko Gaz-
tetxean. Horrez gain, Ganeketxe,
Topa, Txapalaparta, U2, Abarke-
teruena eta Sorgin tabernetan
itsulapikoak jarri eta U2, Sorgin
eta Arranon kamisetak salgai
jarri dituzte, besteak beste.

Amankomunazgoaren aholkularitzagaz, iaz 62 enpresa sortu zituzten

2018an, Durangaldeko Amankomunazgoak 98 ekintzaileri eskaini zien aholkularitza-zerbitzua negozioak martxan jartzeko

DURANGALDEA • A.M.

Norberak bere enpresa martxan jartzeko ez da nahikoa izaten ofizioa ezagutzea. Enpresa munduan lehenengo pausoak eman gura dituzten ekintzaileei begira, Durangaldeko Amankomunazgoak aholkularitza eta prestakuntza zerbitzuak eskaintzen ditu. Ilusioz

74 ekintzailek 62 enpresa jarri zituzten martxan iaz, eta 88 lanpostu sortu zituzten

74 ekintzaileetako 41 (%55) emakumezkoak dira; 30 enpresa eurek sortu dituzte

beteta negozio berri horiei ekin gura dieten pertsonen bidea erraztea dute helburu zerbitzu hauek.

Jarduera mota

Durangaldeko Behargintzaren arabera, 74 ekintzailek 62 enpresa jarri zituzten martxan 2018an. Guztira, 88 lanpostu sortu zituzten, gainera. Enpresa horietako 28k (%45) pertsonentzako zerbitzuetan dihardute. Hamahiruk (%21), ostera, enpresentzako

zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta hamaika enpresek (%18) merkataritzan egiten dute lan. Ostalaritzan, turismoan, eraikuntzan eta nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan ere hainbat enpresa sortu dituzte. 74 ekintzaile horietako 41, %55, emakumeak izan dira. Gainontzekoak, 33, gizonezkoak izan dira. 62 enpresetako 30 (%48) emakumezkoek bakarrik jarri dituzte martxan; 25 enpresa (%40) gizonezkoek bakarrik, eta zazpi enpresen kasuan, gizonezkoek eta emakumezkoek elkarregaz jarri dute martxan enpresa.

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak urtero argitaratzen du diru-laguntza deialdi bat laganezian eta bazterkeria arriskuan dauden pertsonen artean autoenplegua eta enpresak sortzeko. 2018ko deialdian Durangaldeko Behargintzan aholkularitza jaso duten enpresetako 38k eskatu zuten laguntza hau, eta 20ri 102.123 euroko laguntzak onartu dizkiete.

Garapen agentzia

Durangaldeko Behargintzak 2000. urtean ekin zion bere ibilbideari, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Eskualdeko Garapen Agentzia moduan. Helburuen artean, garapen ekonomikoa, gizarte garapena eta ingurumen garapena ditu. Garapen ekonomikoari dagokionez, enpresak sortu eta finkatzeko aholkularitzari eta prestakuntzari buruzko zerbitzuak eskaintzen dituzte.

“Durangaldeko Behargintzaren aholkularitza oso lagungarria zaigu proiektu honegaz”

Zein da enpresaren jarduera?

Alor energetikoko enpresentzako softwarea garatzen dugu. Zehatzago esateko, energia ekoizle, banatzaile eta komertzializatzaileekin. 'Cloud Computing'-aren abantailak erabiltzen ditugu bezeroei malgutasuna eta bizkortasuna eskaintzeko.

Zein da zuen lorpenik handiena?

Merkatu xedeak guk eskaintzen ditugun zerbitzuak eta negozio eredu onartu izana.

Oztoporik izan duzue?

Erakunde askogaz egin behar den tramite burokratikoa.

Hazteko aukerarik ikusten duzue?

Bai. Eskaintzen dugun cloud zerbitzuagaz, erakunde handiagotara jo dezakegula uste dugu. Gainera, nazioarteratzeko bokaizioz jaio zen enpresa, batez ere Portugal, Italia eta Mexikoko merkatuetan ikusten



Divakia

ditugu aukerak, hango merkatua berriki liberatu dutelako.

Ekintzaile batek enpresa berri bat martxan jartzen duenean, zeren falta sumatzen du?


Argitasun eta homogeneousotasun gehiago, beharbada. Erakunde publiko zein pribatuek informazioa eskatzen dutenean, txosten, ziurtagiri edo bestelako dokumentazioa desberdina izaten da bakoitzarentzat, eta lan handia suposatzen du horrek.

Behargintzaren aholkularitzak bide horretan lagundu ditu?

Durangaldeko Behargintzaren aholkularitza oso lagungarria izan zaigu.

DURANGALDEKO BEHARGINTZA

Laubideta kalea, 6 DURANGO
Tel.: 946 23 25 22
www.mdurango.org



“Bezero bat behin baino gehiagotan dator kizunean, lana oso gustura egiten duzu”

Zein da enpresaren jarduera?

Goi-mendi eta arroila jaitsierako gidaria naiz. Alpinismoa, izotz eskalada eta mendiko eskia neguan, eta arkaitz eskalada, arroila jaitsiera eta mendi ibilbideak egiten ditut udan bezeroekin.

Noiztik dago martxan?

2018ko neguan hasi nintzen, irteera gidatuak eta mendi ikastaroak eskaintzen.

Zein izan da jarduera martxan jarri zenuenetik izandako lorpenik handiena?

Bezero bat behin baino gehiagotan dator kizunean eta zugaz batera bere mendiko proiektuak betetzen dituenen, lana oso gustura egiten duzu.

Zein izan da gairitu beharreko oztoporik handiena denbora tarte honetan?

Hasieran, bezeroak egin arte eta jendeak ezagutzen zaituen arte, ez da erraza martxan jartzea. Gogotsu eta animoz egon behar duzu aurrera jarraitu ahal izateko.

Hazteko aukerarik ikusten duzu?



Asier Perez

Horixe da helburua: denboragaz ikasten jarraitzea eta jendeari geroz eta zerbitzu hobe eskaintzea.

Ekintzaile legez, zeren falta sumatzen duzu enpresa berri bat martxan jartzerako orduan?

Hasieran, beldurra eta zalantza da dena. Zure kontura lanean hastea ez da erraza, eta inguruan antzeko esperientzia duenen bat ez badaukazu, asko kostatzen da.

Durangaldeko Behargintzari aipamena.

Behargintzako aholkulariei esker, buruan neuzkan ideiak ordenean jarri ahal izan nituen, eta horrek asko lagundu zidan proiektua aurrera eramaten.

“Zailena inbertsio ekonomikoa izan da, izan ere, ECO materiala dugu”

Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Naturopatia zerbitzuak eskaintzen ditugu, 2018ko ekainaz geroztik. Bestalde, gelak alokatzen ditugu, ongizaterako eta hazkuntza pertsonalerako ekintzetarako.

Zein izan da zuen lorpenik handiena?

Gu ezagutzera datozen pertsonen balorazio positiboa; ekimenen zein azpiegituren balorazio baikorrak jaso ditugu.

Zer izan da zailena?

Inbertsio ekonomikoa, izan ere, ECO materialen aldeko apustua egin dugu. Errespetuaren aldeko ekimen honek, laguntzen edo pizgarrien falta sumatu dugu. Hala ere, koherentzia pertsonalagatik eta planetarekiko errespetuagatik, aurrera egitea erabaki genuen.

Zer asmo duzue etorkizunerako?

Etorkizuna oso ona izango dela uste



Centro U-Nan

dugu, izan ere, gero eta gehiago gara gure ongizate fisikoaz eta emozionalaz arduratzen garenak. Herrietako kolaboratzaileez gainera, kanpoko pertsona edo zentroekin harremana dugu.

Ekintzaile moduan, zeren falta sumatzen duzue?

Erakunde laguntza gehiago, izan tokikoak, herrialdekoak, Eusko Jaurlaritza... Traba asko jartzen dizkigute lege aldetik.

Zertan lagundu dizue gehien Behargintzak?

Autoenplegurako eta bestelako gai garrantzitsuetarako oso lagungarria da.

**Lagun Artean
abesbatzako gazteek
kontzertua eskainiko
dute, gaur**

MALLABIA • J.D.
Lagun Artean abesbatzako gazteek emanaldia eskainiko dute, gaur, 19:30ean, Mallabiko elizan. Kontzerturako sarrera doakoa izango da.
Sei eta hamabi urte arteko 23 gaztek osatzen dute abesbatza. Denek elkarregaz, zazpi abesti euskaldun eta atzerriko hizkuntzetako beste sei eskainiko dituzte, batez ere jatorri afrikarrekoak. Euskarazko errepertorioari dagokionez, euskal kanta herrikoiak eta Imanol Urbietaren (Zarautz, 1934-2016) kantutegiko kanon batzuk —izaera polifonikoa duten konposizioak— abestuko dituzte. Urbieta gaztetxoentzako makina bat abesti ezagunen sortzailea izan zen.

**Putzu septikoak
berriztu zein berriak
egiteko diru-
laguntzak, Atxondon**

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Atxondon, diru-laguntzak emango dituzte baserri guneetan putzu septiko zaharrak berrizteko zein berriak egin eta saneamendu sarera lotzeko. Atxondoko Udalak jakitera eman duenez, instalazioaren %50 ordainduko dute, etxebizitza bakoitzari 3.000 euro gehienez. Diru-laguntza eskatu gura dutenek udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko dute beharrezkoa den dokumentazioa, ekainaren 30a baino lehen.

**Maiatzaren 28ra arte
aurkeztu ahalko da
Zaldibarko jaietako
kartel proposamena**

ZALDIBAR • A.M.
Aurten ere lehiaketa bidez aukeratu dute Zaldibarko San Andres jaietako kartel iragarlea. 250 euroko saria irabaziko du kartel hautatuaren egileak; bigarren saria 150 eurokoa izango da. Iaz bezala, haurrentzat ere sari berezi bat egongo da. Proposamena aurkezteko azken eguna maiatzaren 28a izango da. Informazio gehiago gura duenak udaleko webgunera edo bulegoetara jo dezake.

**Izurtzako erabilera anitzeko gunea egiteko lanak
hilabete eta erdiren barruan hasteko asmoa dute**

Gune berria egiteko lanak Gasteizko Indenort enpresari ematea onartu zuten eguazteneko udalbatzarrean, aho batez

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO
Izurtzan, laster hasiko dira gaztelekua dagoen tokian erabilera anitzeko gunea egiteko asmoa errealitate bilakatzen. Aurreikuspenak betetzen badira, lanak hilabete eta erdiren barruan hasiko dituzte.
Eguaztenean egindako udalbatzarrean, EH Bilduk eta EAJk aho batez esleitu zituzten lanak. Gasteizko Indenort enpresak eramango ditu aurrera, Mañariko

**Erabilera anitzeko gunea
sortzeko lanak 194.000
eurotan esleitu dizkiote
Indenort enpresari**

kiroldegia egiten ari den enpresak berak. 194.000 euro izango ditu lanak egiteko. Hurrengo urratsa euren kontratua sinatzea izango da. Hurrengo astean bertan gauzatu daiteke tramite hori. Une horretatik aurrera, Indenortek hilabeteko epea izango du lanak hasteko.
Alde batetik, barruko espazioa berrantolatuko dute, eta gela handi bakarrean edo gela bitan banatuta erabiltzeko modua egongo da. Bestetik, eraikina eraberritu egingo dute. Argiteria berriztu eta aireztapen zein berogailu siste-



Orain arte, Gazteleku moduan erabili izan da frontoi ondoan dagoen eraikina.

**Hurrengo egunetan
sinatuko dute kontratua
enpresagaz, eta gero
hasiko dituzte lanak**

**Barruko espazioa
berrantolatu eta
eraikineko azpiegiturak
hobetuko dituzte**

mak jarriko dituzte, eta hornei hezetasunaren kontrako tratamendua emango diete. Horrez gainera, kanpoko argitasun naturala hobeto aprobetxatzeko, plazarako tunelaren aldetik leiho berriak egingo dituzte.

**Berdintasunerako Kontseilua
sortuko dute lurretan**

Lau arlotan banatuta, 73 ekintza jasotzen ditu onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planak

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Berdintasunerako Kontseilua sortuko dute Iurretan, "berdintasunaren alde lan egiten duten eta lan egiteko prest dauden elkarleen arteko elkarlana bultzatzeko eta hausnarketarako espazioa sortzeko". Onartu berri den Emaku-

meen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren barruan eratu da. Gobernantza, Emakumeen ahalduntzea, Gizarte antolakuntza erantzunkidea eta Emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko herria izatea. Lau arlo horiek batzen ditu planak (2019-2023).



Martxoaren 8an lurretan egindako kontzentrazioa.

**TAO sistema doako bihurtu
gura du lurretako EH Bilduk**

Kultur etxearen birmoldaketa eta etorkinei laguntzeko Harrera Taldea sortzea ere batu dituzte herri programan

IURRETA • AITZIBER BASAURI
EH Bilduk osatu du hurrengo udal hauteskundeetarako herri programa. Hori osatzen duten proposamenak "era parte-hartzailean eta herritarrekin egindako batzar zabaletan" landu dituzte, azaldu dutenez. Bultzatu gura duten egitasmoetako bat egoiliarrentzako TAO sistema doakoa bihurtzea da. Bestalde, ordutegi zabalagoa eskaini eta Ibarretxe kultur etxearen birmoldaketa bultzatuko dute. Etorkinei laguntzeko Harrera Taldea eta partaidetzarako aukerak "sakontzeko" foro sozialak ere sortu gura dituzte.

Bestalde, N-634 errepiderako proiektua gelditu gura dute, "trafiko handiagaz herriak duen arazoa konponduko ez duen partxe bat" delakoan, eta Aldundiagaz

hitzarmen berria landu gura dute. Era berean, Maspeko biribilgunea eraldatu gura dute, iurretarrekin lehentasuna izateko. Abadetxea herrira zabaltzeko eta kirol azpiegiturak iurretarren esku jartzeko ere lan egingo du EH Bilduk.

**N-634 errepiderako
proiektua gelditu gura du
EH Bilduk, "partxe bat"
dela uste duelako**

Emakumeentzat arriskutsuak izan daitezkeen puntu beltzak identifikatu eta horiek hobetu gura ditu EH Bilduk. Euskara ikastea doakoa izatea eta etxebizitzaren alokairu soziala bultzatu gura dituzte.



Cristina Petite 1998an, Iurretako Hiri Probako podiumean.

Hareek denporak!

Petitek inoiz baino autografo gehiago sinatu zituen eguna

Cristina Petite abadiñarra Durangaldeak eman duen korrikalaririk onenetakoa da, onena ez bada. Urte askoan, munduko onenekin aritu zen lehian. 1999an, 3.000 metroko probako munduko txapelketan seigarren amaitu zuen, esaterako. Baina errekonozimendurik beroena eta gertukoena Iurretako Hiri Proba irabazi zuenean heldu zitzaion, 1998an. "Ez dut bizitza osoan orduan beste autografo sinatu. Espai-

niako Txapelketa irabazi nuenean ere ez", onartu du abadiñarrak. Amaya Piedra, Judit Pla eta bestelako aurkari gogorrak atzean utzita, bakarrik helmugaratu zen. Urte hartan, Keniako eta Tanzaniako korrikalari bi geratu ziren bigarren eta hirugarren.

Eguraldi txakurra egin zuen. "Txingorra, haizea... kondizio desatseginetan lehiatu behar izan genuen", gogoratu du.

Durangaldea asteen

Ginekologia eta kirurgia txikia zerbitzuak mantentzeko eskatu du EH Bilduk

Abadiño • Matienako Osasun Zentroan ginekologia, kirurgia txikia eta antzerako zerbitzuak orain artean bezala eskaintzen jarraitzeko konpromisoa eskatu dio ohar baten bidez Abadiñoko EH Bilduk Osakidetza. Hala ere, Zelaietako Osasun Zentroa hantitzeko erabakiagaz pozik agertu da EH Bildu. "Urteetan izandako hazkunde demografikoari baliabide egokiekin erantzungo dio".

Durangaldeko pentsiodunek hilaren 13an Bilbon manifestatzeko deia egin dute

Durangaldea • Datozen hauteskunde kanpainei begira, pentsiodunek Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan egingo dituzte mobilizazioak. Apirilaren 13an, manifestazioa egingo dute Bilbon, hilaren 28an egingo diren Espainiako hauteskundeetarako kanpaina hasi eta biharamunean, hain zuzen. Manifestaziora elkarregaz joateko deia egin dute Durangaldeko pentsiodunek. Mobilizazioa 18:00etan abiatuko da, Jesusen Bihotza plazatik.

GARaren zorra kitatzeko, elkartasun batzordea eratu gura dute Durangaldean

Durangaldea • GARA egunkariarekiko elkartasun taldea eratu gura dute Durangaldean. Egin-ek Gizarte Segurantzazagaz zuen 4,7 milioi euroko zorra egotzi zioten GARARI, eta horri aurre egiteko, hainbat lantalde osatu dira Euskal Herri osoan, harpidedunak bilatzeko; 10.000 lagunek harpidetza egitea da helburua. Lehenbiko batzarra apirilaren 10ean egingo da, 19:00etan, Plateruenean.

Iritzia

Osasun eskubidea guztiontzat ote?

Igandean, apirilaren 7an, osasun eskubidearen nazioarteko eguna ospatzen den egunean, larriki gaixorik dauden euskal presoek bizi duten egoerari erreparatu nahi diogu SARE Herritarreko kideok. Urrunketa politikaz gain, duten gaixotasuna euren etxekoan ondoan artatzeko eskubidea ukatzen zaie-eta presoek.

Espainiako zigor kodeak eta espetxe legediak larritasun handiko edo gaixo sendaezinak dituzten presoen egoeraren aurrean baldintza bereziak kontuan hartzen dituela gogorarazi nahi dugu. Baldintza horiei helduz, gaixotasunaren beharrezko informeari soilik erreparatuz, hirugarren graduan egon beharko lukete.

Durangon, Gorka Fraile eta Asier Aginako beraien gaixotasunari aurre egiteko egoera desberdinetan daude. Nahiz eta gaixotasun larria izan, Gorka Fraile kartzelan dago, eta etxetik urrun. Asier Aginako kalean dago, gaixotasun larriagatik dagozkion baldintzak ezarrita.

Osasun eskubidea oinarritzko eskubide bat da; oinarritzkoa eta unibertsala. Hori horrela izanik, pertsona guztioi aitortu eta errespetatu beharrekoa da. Gorka Fraile bizirik eta etxean nahi dugu!

Egia da zigorturik egon eta gaixotasun larri bat duen preso baten kaleratzeak ez duela sendaezina den gaitz bat sendatuko, baina horren hobetze eta garapenaren moteltze nabarmena dakar, zalantzarik gabe.

Duintasunagatik, gizatasunagatik eta justiziagatik, larriki gaixorik dauden presoek kartzelatik kanpo egon behar dute.

Durangon elkarretaratzea San Agustin zubian, 13:00etan.

Mariam Bilbatua, Durangoko Sareren izenean.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

GAER  **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com


ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAH ENKARGUZ
Gutxienez 15 laguneko taldeentzako




Ezetz aSMatu!

Osatu esaera zaharra:



A zer parea



Sartu
www.plazanbazan.eus
web atarian eta
denbora-pasa hauen erantzunekin
batera beste hainbat jolas aurkituko
dituzu.

MARGOTU

Kameleoiek aldar-tearen arabera aldatzen omen dute larruaren kolorea, normalean. Honek ordea, gordetzeko egingo du. Inguruko koloreak hartuz, kamuflatu egingo da. Zer itxura hartuko du? Margo ezazu.







www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aivri)

PAREAK EGIN

Lotu sukalde-tresna bakoitzari dagokion produktua



5 Mermelada egiteko oinarri-oinarrizkoak fruta, azukrea, eta ura dira. Erreparatu marrazkian dauden fruta guztiei eta esan: hemen dituzun poto hauetatik zein ezingo genuke bete ?



1 Fruta eta barazki ugari ikusten da hemen, baina ba al da limoirik ? 2 Eta porrurik ? 3 Zenbat gerezi ikusten dituzu ? 4 Ba al da ur botilarik ?



Aste Santua Fun Weeks Hiri-kanpamentuak ingelesez 3 urtetik 10 urtera



Kids&Us Durango · Durangoko Plateruen Plaza 8 · T. 609 533 343 · durango@kidsandus.es · www.kidsandus.es



25 urte ospatzeko, kartel lehiaketa

LEHIAKETA | Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialak 25 urte beteko ditu 2019-2020 ikasturtean, eta urteurren borobil hori ospatzeko, kartel lehiaketa antolatu dute.

Herritar guztiei zabalduzako lehiaketa da eta maiatzaren 31 izango da lanak aurkezteko azken eguna, jakitera eman dutenez. Lanen formatuari dagokionez, A3 tamainako kopia

bi aurkeztu behar dira, eta PDF artxiboa ere bai. Hizkuntza Eskola Ofizialeko idazkaritzan aurkeztu daitezke lanak (Zubiaurre kalea, 1). Bestela, hurrengo posta elektronikoa ere erabili daiteke: 015054aa@hezakuntza.net.

Aurkeztutako lanen artean aukeraturako kartelaren egileak 600 euroko saria irabaziko du. Kartel hori Durangoko HEOfaren erabilerarako geratuko da.

Apirilaren 5ean

DURANGO kontzertua
‘Tutto opera’ (Gehi Zazpi), 18:30ean, Bartolome Ertzilla musika eskolan.

DURANGO solasaldia
‘Jenijoplin’ (Uxue Alberdi) liburua berbagai, 18:00etan, Andraguneko irakurle taldean.

ELORRIO antzerkia
‘Zazpi senideko’ (Axut!), 20:30ean, Arriolan.

ELORRIO ipuinak
Kontu eta kantu: Fernando Anbustegi, umeen liburutegian: 17:00etan (3-5 urte), eta, 17:30ean (sei urtetik gora).

ZORNOTZA musika
Internacional Citrus Band, 20:15ean, Zelaletan.

Apirilaren 6an

BERRIZ bertsoak
Unai Iturriaga, Oihana Bartra, Beñat Gaztelumendi eta Miren Artetxe, 19:00etan, Hiltege gaztetxean.
Gai jartzailea: Berrizko Bertso Eskola. Irabaziak Palestinako Basket Beats Borders saskibalo taldeak Euskal Herrian egingo duen birari laguntzeko.

DURANGO antzerkia
‘Pretérito imperfecto. Una comedia ¿romántica?’ (David Caiña), 20:00etan, San Agustín kulturgunean.

DURANGO musika
IntxauReggae: Little Martin Seлектah, 23:30ean, Intxaurren.

ELORRIO dantza
Break On Stage 2019. Bilbao Arenan, 18:45ean. Autobusak Elorriotik.

IURRETA solasaldia
Arianne Faber-en eskutik ilustrazio tailerra, bibliotekan (11:00-13:00).

Apirilaren 7an

ABADIÑO deialdia
Uraren inguruko bizidunak aztertze jarduera. Urkiola Parke Naturalak antolatuta (euskaraz). 8 urtetik gorakoentzat. Informazioa: urkiola.naturala@bizkaia.eus / 94 681 41 55

DURANGO lehiaketa
Book Trailer lehiaketaren sari banaketa, 11:30ean, Plateruena kafe antzokian. Ikastetxeetako ikasleak. ‘Martxoak 31. Durangoko Bonbardatzeak oroitz. 1937-2019’.

DURANGO musika
‘Hiru ikuspegi, hiru hizkuntza, bizitza ikusteko hiru modu’, 19:00etan, San Agustín kulturgunean. Tabira Musika Banda Alberto Urretxo tronboi bakarariagaz. Luis Orduñaren zuzendaritzapean.

IURRETA irteera
Astxiki eta Alluitzera umeentzako irteera, 09:00etan, Andaparapen. Mendiolara kotxeak elkarbanatuz joango dira. Buelta, eguerdian. Maiztegiko guraso elkarrekin eta Zaldaik antolatuta. Informazioa: zalda@hotmail.com / www.zalda.eus/ 626 740 969

Apirilaren 8an

ABADIÑO hitzaldia
‘Ur-ingurumena mantentzearen erronka: arazo nagusiak eta konponbideak’, 19:00etan, Errota kultur etxean.

Apirilaren 9an

DURANGO musika
Pelikuletako gai famatuen kontzertua piano ikasleen eskutik, 17:30ean, Bartolome Ertzilla musika eskolan.

Apirilaren 10ean

ABADIÑO lehiaketa
Traña-Matienako Txosnaguneko Maskota Lehiaketarako azken eguna. PDF formatuan aurkeztu behar dira: matienakotxosnak@gmail.com. Saria: Otzara ederra.

DURANGO elkarriketa
‘Kazetariak arrazakeriaren kontra’. Irrati elkarriketa zuzenean Rosabel Argote kazetari, ikertzaile sozial eta CEAR-Euskadiko arduradunari. Idoia Azkorbebeitia kazetariak egingo dio, 11:00etan, Plateruena kafe antzokian.

ELORRIO dokumentala
‘Namrud el problemático’ dokumentala, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

Apirilaren 11n

DURANGO zineforuma
‘Cuando la red no es social’, 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian. Zinhezba elkarteko Helena Gonzalezek zuzenduta.

DURANGO musika
Dj Jesus Morillo, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan.

ZALDIBAR izena ematea
Olazar parke osasungarrian ariketa fisikoa egiteko izena emateko azken eguna. Udaletxean edo liburutegian. Ariketa saioak maiatzeko eta ekaineko martitzenetan, 09:30etik 10:30era.

Apirilaren 12an

ABADIÑO deialdia
Urkiolako zerua gauez. Betelguese Astronomia Elkarteko Aitor Acasusok gidatuta. 8 urtetik gorakoentzat (gastelaniaz). Informazioa: urkiola.naturala@bizkaia.eus / 94 681 41 55

ABADIÑO lehiaketa
San Trokaz jaietarako kartel lehiaketarako azken eguna. Mediatekan edo Errota kultur etxean.

BERRIZ antzerkia
Limbo planeta (Dejabu Panpin Laborategia), 18:15ean, Kultur Etxean.

GARAI ibilbidea
Heriotza-errituak ezagutzeko ibilbidea. 19:30ean. Gerediagak antolatuta. Elkartegia, lurretako Aita San Migel eliza osteko aparkalekua (autobus zerbitzua dago). Izena emateko: 09:00-13:00/15:00-18:00; barikuan, 08:00etatik 15:00etara. Apirilaren 13an ere egingo dute.

Apirilaren 14ra arte

ELORRIO erakusketa
‘Elorrioko Gerra Zibilaren Memoria’, Iturri kultur etxean: 11:00-13:00/18:30-20:30. Bisita gidatua DBHko 4. mailakoekin. III. Memoria Astea.

Apirilaren 23ra arte

DURANGO erakusketa
‘Irudi izoztuak vs izoztutako oroimenak’, Andra Maria inguruan. ‘Martxoak 31. Durangoko Bonbardatzeak oroitz. 1937-2019’.

Apirilaren 28ra arte

DURANGO erakusketa
‘Argiak eta itzalak’ Acuzena Fernandez. Arte eta Historia Museoa.

DURANGO erakusketa
‘Al Ente’. Erakusketa kolektiboa: Iranzu Antona, Mariana Unda, Eztizen La Cruz, Leire Muñoz, Clara Elizondo eta Andere Etxegarai. Arte eta Historia Museoa.

Olatz Salvador

KONTZERTUA
IURRETA :: Apirilak 6

Olatz Salvador abeslari do-
nostiarrak Orozketa auzoan
abestuko du zapatuan, Auzo-
rik Auzo ekimenaren eskutik.
Kontzertua 18:00etan hasiko
da, eta, horren ostean, luntxa
egongo da bertaratzen diren
guztientzat.





Pretérito imperfecto
Apirilak 6, zapatua
20:00etan




Pinotxo
Glu glu Produkzioak
Apirilak 14, domeka
18:00etan



Topaklown
Apirilak 17tik 21era
- Liquido teatro and duo facil (Apirilak 17, 22:00etan)
- Duo las polls (Apirilak 18, 18:00etan)
- Carnage productions (Apirilak 18, 19:30ean)
- Companyia la tal (Apirilak 18, 22:00etan)
- Inda Pereda (Apirilak 19, 20:00etan)
- Zanguango teatro (Apirilak 19, 22:00etan)
- Elise Ouvrier Buffet (Apirilak 20, 20:00etan)
- Klown konbat (Apirilak 20, 22:00etan)
- Topaklown ikastaroen erakusaldia (Apirilak 21, 20:30ean)



Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus



Apirilaren 6an

ZORNOTZA bazkaria
Korrika bazkaria,
14:30ean, Urange
tabernan. Txartelak,
Urange eta AEK
euskaltegian (25 euro).

Apirilaren 10ean

BERRIZ solasaldia
‘Basa’ eleberria
berbagai. Hizlariak:
Maite Berriozabal
eta **Miren Amuriza**,
19:00etan, Kultur Etxean.

Apirilaren 11n

DURANGO bertsoak
Bertso Korrika: Onintza
Enbeita, Manu Goigana,
Aitor Bizkarra eta
Gorka Pagonabarraga.
19:00etan, Plateruenean.
Gai jartzailea:
Leire Vargas.

ZORNOTZA antzerkia
‘Hozkailua’ (Huts Teatro),
19:00etan, Zelaietako
kontzertu gelan.

Apirilaren 12an

BERRIZ lasterketa
Korrika txikia, 15:00etan,
BBK aurretik eskolaraino.

ELORRIO lasterketa
Korrika txikia, 14:30ean,
plazatik. Gero, **txokolatea,**
aurpegia margotzea eta
Korrikako dantza. Pirritx,
Porrotx eta Marimotots,
17:00etan, Arriolan.

IURRETA lasterketa
Korrika txikia, 11:00etan,
Maiztegitik. Aaitzean,
plazan, **txokolatea eta**
DJa. Umeentzat herri
kirolak, 18:00etan,
Askondon.

MALLABIA lasterketa
Korrika txikia, 15:00etan,
eskolatik. **Txokolatea,**
16:30ean, plazan. **Jolasak**
umeentzat, 17:00etan.

OTXANDIO lasterketa
Korrika txikia, 10:30ean,
Eskolako umeen
irratsaioa, 09:30ean.

ZALDIBAR lasterketa
Korrika txikia, goizean.

ZORNOTZA lasterketa
Korrika txikia, 10:30ean.
Jaia Zelaietako frontoian.

ZORNOTZA tailerra
‘Kiribil’ zirku tailerra,
17:30ean, Herriko plazan.
Poteo musikatua Kittu
taldeagaz, 19:00etan,
Sukoi tabernan hasita.

Apirilaren 13an

ABADIÑO bazkaria
Maleta siku, 14:00etan,
probalekuan. Gero, **bingo**
musikala. Nafarroa kanta
txaranga, 20:00etan.

BERRIZ musika
Diskorrika,
18:00etan, Olakueta.
Kantulagunekin poteoa,
19:30ean.
Afaria, 21:00etan,
frontoian. Txartelak Fondan
eta Amalur liburu-dendan
(15 euroan, umeek 7).
Dj Ainhua, 22:00etatik
24:00etara, frontoian.

DURANGO bazkaria
Triki-poteoa, 12:00etan,
Andra Marian hasita.
Bazkaria, 14:30ean,
Plateruenean. Txartelak
AEKn (15 euroan, umeek
6). Gero, **bingo musikatua**
eta umeentzako jolasak.
Argazkia aterako dute.

ELORRIO musika
Erromeria, 13:00etan,
plazan. Eusko Labeleko
hanburesak. **Korrikako**
dantza eta argazki
herrikoia, 15:00etan.

MALLABIA musika
Txaranga, 17:30ean.

IURRETA bazkaria
Paella lehiaketako
aurkezpena 14:00etan,
Askondon. Gero, **bazkaria.**
Izena ematea, tabernetan.
Dantza-kantu poteoa
17:00etan eta Korrikaren
ostean.

OTXANDIO diru-bilketa
Peto salmenta eta
diru-bilketa, 19:00etan,
plazan. 01:55ean, Korrika
agurtuta, **txokolatea**
plazan.

ZALDIBAR dantza
Dantzarien **Korrikari**
ongiectorria, 13:00etan,
udaletxearen aurrean. **Dj**
Pakigaz Gaztetxetik
jaitciera, 14:30ean.
Disko-festa, 17:30ean,
udaletxearen aurrean.
Luntxa, 19:00etan.
19:30ean, **Sakatu**
elektrotxaranga.

ZORNOTZA dantza
Eingo Kantan Ta Dantzan,
14:30etik 17:30era,
tabernaz taberna. Luis
Urrengoetxea kalean,
19:30ean, **Zarata 18**
elektrotxaranga. Eko
Taloak, 13:00etatik
16:00etara, Euskal Herria
plazan.

Zinea

:: **Berriz** KULTUR ETXEA

• **Cómo entrenar a tu**
dragón 3
barikua 5: 17:00
domeka 7: 17:00

:: **Durango** ZUGAZA

• **Shazam**
barikua 5: 19:30/22:00
zapatua 6: 16:30/19:30/22:30
domeka 7: 18:00/20:30
astelehena 8: 18:00/21:00
martitzena 9: 20:00
eguzatena 10: 20:00

• **Cementerio de animales**
barikua 5: 19:30/22:00
zapatua 6: 16:30/18:30/22:30
domeka 7: 18:00/20:30
astelehena 8: 18:30/21:00
martitzena 9: 20:00
eguzatena 10: 20:00

• **La sombra del pasado**
barikua 5: 19:30
zapatua 6: 19:00/21:00
domeka 7: 19:30
astelehena 8: 18:30
martitzena 9: 20:00
eguzatena 10: 20:00
• **Dumbo**
zapatua 6: 17:00
domeka 7: 17:00

:: **Elorrio** ARRIOLA

• **Mula**
zapatua 6: 22:00
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 20:00
• **Pirata arratoia**
domeka 7: 17:00

:: **Zornotza** ARETOA

• **Dolor y Gloria**
zapatua 6: 22:00
domeka 7: 20:00
astelehena 8: 20:15
• **Dumbo**
zapatua 6: 17:00/19:30
domeka 7: 17:00

“Sentipenei berbak jarrita, asko zehazten dira pentsaerak”

Alabaren galeraren terapia legez, 'El tiempo, la ausencia' liburuak idatzi du Javier San Salvador del Valle

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Javier San Salvador del Valle durangarrak 'El tiempo, la ausencia. A propósito de 22' liburuak kaleratu du oraintsu. Paule San Salvador del Valle alabak idatzitako '22'-ren harira egindako hausnarketak biltzen ditu, besteak beste. Ausentziak, doluak, eta heriotzaz idatzi du San Salvadorrek, barrenak hustuz.

'Hitzeak salbatu naute' idatzi duzu liburuaren hitzaurrean.

Esaldi hori nire alabarena da, 22-n idatzi zuen hori. *El tiempo, la ausencia*aren atal bakoitzaren sarreran, 22ko zitak jarri ditut. Idazteko erraztasuna zuen nire alabak, eta ehun esaldi polit baino gehiago atera nituen, berrirakurketa egin ostean. Atalean berba egiten dudana nagaz lotura dute esaldi horiek. 'Hitzeak salbatu naute' hori printzipio adierazpen bat da.

Zelako prozesua izan da idazketa?

Duroderroer bloga daukat orain urte batzuetatik, baina, bestela, ez dut beste ezer idatzi. Liburuaren hasierako helburua Pauleri buruzko zertzelada batzuk ematea zen. Liburuak idazten hasi nintzenean, 22 zabaltzen saiatzen genbiltzan; sasoi horretan, jendeak egindako iruzkinak edo niri esandakoak apuntatzen hasi nintzen, bestela ahaztuko nituelakoan, eta konturatu nintzen

banuela nahikoa material zerbait egiteko. Liburuak aurpegi bi ditu, nire ustez. Alde batetik, terapia legez balio zidan, baina, aldi berean, mina errepikatzen ari nintzela konturatu nintzen. Hala ere, barrenak husteko balio izan dit, baita nire burua azaltzeko ere. Pentsatzea gauza bat da, baina sentipen horiei berbak jarrita, asko zehazten dira pentsaera horiek.

Zelan dago egituraturik liburuak?

Nire lehenbiziko asmoa Paule ez ahaztea zen, hortik aurrerako planik ez. Hari bi ditu liburuak. Alde batetik, alabaren gaixotasuna, minbizia nola bizi zuen. Bigarren hariak, oster, 22ren prozesua kontatzen du. Hori ere gogoratzea gura nuen, tarte batzuk, teknikotasunagatik, aspergarriak izan zitezkeela jakin arren. Baina horri buruz ere idatzi gura nuen. Hirugarren hariak kontu honek guztiak sortu dizkidan gogoeta eta sentimenduak idaztea zen, prozesu osoan zehar bizi izan dudana. Doluari buruzko hainbat liburu irakurri ditut bide honetan.

Sentimenduei berbak jartzea ez da ariketa erraza.

Dударик barik. Dena esanda dagoela jakitea gakoa izan da, baina. Hasieran ez nuen pentsatu, baina gero bai, inguruko norbaiten galera jasatea eguneroko kontua dela,



Javier San Salvador del Valle Zarrabeitia

Durango | 1955

denoi gertatu zaigun gauza bat dela. Irakurlea liburuan islatuta sentitu daiteke eta horixe da liburuaren ezaugarriarik onena. 22k ere

“

Denoi gertatu zaigu inguruko norbait galtzea; irakurlea liburuan islatuta sentitu daiteke”

—

horixe du onena. Liburu gogorra izan arren, mezu baikorra zuen, eta jendea konturatu zen horretaz. Eta nik sekulako pisua kendu dut gainetik idazterakoan. Nireagaz helburu apalagoa dut. 22ren 1.300 ale saldu ziren Durangon bakarrik. Nirea gehiago da Pauleren lagunei eskerrak ematea, baita familiari eta 22 irakurri dutenei ere.

Alboan GKEarentzat dira irabazi ekonomikoak.

22gaz berdina egin genuen, liburuagaz dirua irabaztea gauza immoralak iruditzen zitzaigun eta. Je-

suitekin eta Deustugaz harremana izan zuenez Paulek, logikoa iruditut zitzaigun Alboanegaz lan egitea. Liburuak autoeditatua da; 200 ale banatuta daude eta beste 200 inprimatuko ditugu.

Baduzu liburuak aurkezteko asmorik?

Deustuko unibertsitatean aurkeztu nuen, pasa den astean, alabak parte hartzen zuen literatura tailerrean.

Non dago salgai liburuak?

Durangoko Hitzen, Urriken eta Etxebarrian. Baita Deustuko Campus eta Elkar liburu-dendetan. Amazon bidez ere erosi daiteke.



Eider Gallastegi eta Irune Basagoiti.

Durangaldeko bertsolari taldeak irabazi du Gazteen XXVII. BBK sariketa

Apirilaren 3an jokatu zen txapelketako finala, Bilboko BBK aretoan; Altubek bizkaierarik egokienaren saria lortu zuen

BERTSOLARITZA • A.M.

Durangaldeko taldeak irabazi du aurtengo XXVII. BBK sariketa. Irune Basagoitik, Ander Sarriugartek, Eider Gallastegik, Gorka Pagonabarragak, Iruri Altzerrekak eta Bittor Altubek osaturiko seikoteak jantzi du txapela. Hain zuzen ere, azken honek finalisten arteko bizkaierarik egokienaren saria ere jaso zuen finalean. 466,50 puntu poltsikortu zituen Durangaldeko taldeak; aurkariak, Hego Uribeko taldeak,

Durangaldeko taldeak 466,50 puntu lortu zituen; Hego Uribekoak, oster, 407 puntu

Bittor Altubek bizkaierarik egokienaren saria irabazi zuen finalean

oster, 407 puntu. Finaleko saioko aurkezlea Ainhoa Urien izan zen, eta Miriam Juaristik, Graxi Arregik eta Juanjo Respaldiza Garaiabalek osatu zuten epaimahaia. Idazkari lanetan Ione Narbaiza aritu zen.

Taldeakakoan ere aurrera

Bestalde, Bizkaiko Taldekako txapelketara aurkezturiko Durangaldeko hiru taldeak bigarren fasera sailkatu dira. Oraindik zehaztu barik dago noiz izango diren Koi-pelustre's, Miotako Bidelapurak eta Tronperrieta taldeen saioak.



Ostalaritza gida

anboto



Durango



PLATERUENA Kafe antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus
Egunero zabalik. Menu bereziak,
egunerokoak, taldeentzakoak eta
ospakizunak.



Durango



KOBIKA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO
Tel.: 946 810 003
Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.



Iurreta



GAUARGI
Dantzari, 4 behe - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta
asteburuetan rabak.



Durango



URRATS
Juan Antonio Abasolo kalea, 3 - DURANGO
Tel.: 946 812 518
Gosariak, bokatak eta pintxoak. Bariku
eta zapatu gauetan hanburbesak. Zapatu
eta domeketan babarrunak enkarguz.



Durango



GORA GORA
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 811 384
Plater konbinatuak, hanburbesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.



Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.



Durango




MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrea kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alai.



Durango



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



'Tupust!' antologia feminista parte hartu dute Eguren, Amurizak eta Eibarrek

Berriki heldu da liburu-dendetara Txalaparta argitaletxeak kaleratu duen lana; 20 egile 2016az geroztik zebiltzan lanean

KOMIKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Tupust! antologia feminista aurkeztu du artista talde batek. Txalaparta argitaletxeak kaleratu du lana. Lan kolektibo honetan, hogeigilek parte hartu dute, tartean Irati Eguren ilustratzaileak eta Miren Amuriza bertsolariak. Komikigintzari buruzko hausnarketa prozesu baten fruitua da lan hau, Egurenen esanetan: "Komikigintzaren eredu tradizionala, maskulinoa, deseraiki gura genuen, eta bestelako bat sortu, euskaratik".

Niaren inguruan gorpuzten dira antologia osatzen duten hamalau lanak, irakurketa ezberdina duten arren. "Niaren inguruko hausnarketa bere modura egiten du bakoitzak, eta horixe ikusten da bakoitzaren lanetan", esan du Eguren. Ilustrazioak egin ditu berak. Amurizak, oster, Eider Eibarren irudiei berbak jarri dizkie. Estiloari dagokionez, askotariko komikiak daude bertan: testudunak, irudi soilak, binetak, marrazki eta testu askokoak, gutxikoak... Tupust izeneko kolektiboa dago proiektu

honen atzean. Komikigintzari buruzko gogoeta egitea zen helburua, eta horretarako hasi zen biltzen irudigile talde bat, 2016an. "Irudigilearen lana nahiko bakartia da berez, eta eredu horren inguruan ere hausnartu gura genuen", azaldu du

"Niaren inguruan gorpuzten dira lana osatzen duten hamalau sorkuntzak"

Eguren. Horrela, egileen arteko sare edo komunitate bat ere sustatu gura zuten.

Aurrerago, antologia Durangon bertan aurkezteko asmoa agertu du Eguren, oraindik ere data jarri barik dagoen arren.



Irati Eguren, 'Tupust!' -en ale bat esku artean duela'

Gai librea

José Julián Bakedano Zinegilea



Jose Bergamin, olerkaria Euskadin (I)

(Madril, 1895 - Hondarribia 1983) Olerkari katoliko eta espainiar honek euskal kausa besarkatu eta Hondarribian eman zituen bere bizitzako azken urteak. Hemen, Egin egunkarian eta Punto y Hora de Euskal Herria aldizkarian idatzi zuen. Bere kolaborazioak *Cristal del tiempo* (Hiru, 1995) eta *Escritos en Euskal Herria* (Txalaparta, 1995) liburuetan batu zituzten. Berea da *komunistekin heriotzaraino, baina pauso gehiagorik ez esaldi famatua*, katolizismoa eta komunismoa adiskidetu zitezen esandakoa. 1933an *Cruz y raya* aldizkaria sortu eta zuzendu zuen, Ortega y Gasseten *Revista de Occidente*-ren erantzuna izan zena. 1936ko ekainean argitaratu zuten azken alea, gerra zibila hasi baino lehen. Orduan, 27ko belaunaldikoekin kolaboratu zuen, independente moduan. Gerra sasoiaren Pradoko Museoaren ebakuazioa zuzendu eta Intelektual Antifaxisten Aliantzako buru ere izan zen. Parisko Enbaxadako agregatu kultural ere izendatu zuten. Idazleen Nazioarteko Kongresuko buru ere izan zen, 1937an, eta berak enkargatu zion ofizialki *Guernica* pintatzea Picasori, Parisko Nazioarteko Erakusketarako. Juan Larreak eta biek kuadroaren prozesuaren jarraipena egin zuten. Franco gailendu zenean, Mexikora erbesteratu zen, eta han *España peregrina* sortu zuen. Venezuelan denboratxo bat egin ostean, Uruguaira joan zen, 1954ra arte. 1958ra arte Parisen egon zen. Madrilera itzultzen saiatu zen, baina atxilotu egin zuten, Erregimenaren oposizioagaz harremana izatearen susmagarria zelako, eta bere etxea erre zuten.

*Erredakzioan itzulita

Bigarren zatia hurrengo alean

Tabira bandak 'Soinuaren Bidaia' egingo du, Alberto Urretxoren tronboiagaz

Apirilaren 7an kontzertua egingo dute San Agustinen; sarrerak Arte eta Historia Museoan eskuratu daitezke

'MUSIKA • A.M.

Alberto Urretxo tronboi bakar-lariaren *Soinuaren Bidaia* proiektuan oinarrituta, kontzertu berezia eskainiko du Tabira Musika Bandak, egileagaz batera. Kontzertu sinfonikoa: hiru ikuspegi, hiru hizkuntza, bizitza ikusteko hiru modu deitzen da saioa, musika garaikidearen hiru sortzaile ere bertan egongo direlako: Julie Girouxen,

Jesus Eguigurenen eta Johan de Meijen hizkuntza musikala errepasatuko dituzte bertan. Luis Orduñak egingo ditu zuzendari lanak.

Kontzerturako sarrerak Durangoko Arte eta Historia museoan hartu daitezke, doan. Edukiera bete arte egongo dira sarrerak eskuragai. 19:00etan hasiko da kontzertua.



Tabira Musika banda, entsegetako batean.

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o

LISIPE: kontrako ezarririk

Uxue Alberdi Susa.

2^o

FAKIRRAREN AHOTSA

Harkaitz Cano Susa

3^o

TXISTU HOTSAK DURANGALDEAN

Juanan Aroma Jaizale & EHko txistulari elkarte

merkataritza gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902

Argazkiak - Datuak - Kokapena (urtean 50€)



IURRETA *Tellitu-n*

*3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne*

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

“Oier sufritzen zebilen eta erantzukizuna hartu behar nuela ikusi nuen; kale edo bale!”

Final gogorra eta parekatua izan zen; binakako Promozio Mailako txapeldunak kantxa barruan bitakoa kontatu du



Aitor Elordi Txakartegi
Binakako Promozio
Mailako txapelduna
Mallabia | 1996

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Aitor Elordi, Mallabiko pilotalekuaren kanpoaldean. Ez da auto bat igarotzen bera agurtu barik. Batek leihatila jaitsi eta "zorionak" oihukatu dio; beste batek ukabila gorantz astinduz agurtu du eta hirugarren bat klaxona hainbat bider jota igaro da. Egunotan, txapelak dakartzan sentsazio goxoak dastatzen dabil mallabitar gaztea.

Zelan doaz txapela irabazi osteko hurrengo egunak?

Ederto. Egunean bertan, oraindino sinistu ezinda nengoen. Biharamunean esnatu eta txapela han zegoe-la ikustean hasi nintzen jabetzen lortutakoaz.

Finalean, defentsan aritzea egokitu zitzaizun, batez ere. Horrela joango zela espero zenuten?

Ez geneukan planteamendu zehatzik. Bagenekien atzean agintzen zutenek asko eginda izango zutela. Salaverri puntu hobean heldu zen. Oierrek ez zuen ligaxkako azken partidua jokatu. Azkenean, egun dezente zeramatzan zuriz jantzi barik. Gero, finala kolpean, han sortzen den tentsioa, debuteko urtea... dena batu zitzaion.

Kanpotik ematen zuen eskumako eskuan min zuela.

Neuk ere horixe uste nuen hasieran, baina ez zen eskuko mina.

Atsedendietan esaten zigun ez zuela pilota ondo ekartzen eskura, eta horrek konfiantza eza eragiten ziola. Nik badakit horrela egotea zer den eta meritu handia du egin zuen lanak: agindu ez, baina ez zuen pilotarik galdu.

Une kritiko horietan, bikoteko aginte makila hartzen ikusi zintugun.

Oier gustura ez zebilela ikusten nuen. Sufritzen zebilen. Orduan, gehiago sartu eta erantzukizuna hartu behar nuela ikusi nuen. Kale edo bale!

Tantorik tantora beragaz berbetan ikusten zintugun. Zer esaten zenion?

Nahiz eta agindu ez, inportanteena akatsik ez egitea zela esaten nion: "Sartu berdera. Agirre ere ez dabil konfiantza askogaz eta altxatu ahal

“Zale eta lagunei asko eskertu behar diet. Partidurik gehienetara etorri dira eta finalean giro itzela jarri zuten”

duzun moduan". Tantoa egin gura bazuten, eurek arriskatu zezatela.

Harmailtan ez zitzaizun animorik falta izan.

Zale eta lagunei asko eskertu behar diet. Partidurik gehienetara etorri dira animatzera, eta finalean ere giro itzela jarri zuten. Egun ahaztezina izango da niretzat, eta zati handi bat eurengatik bat. Nire aititari eta amamari, gurasoei eta Josetxo Areitio, Jokin Etxaniz, eta Gontzal Uriona entrenatzaileei ere eskaintzen diet txapela.

David Garcia kroslaririk onenak asfaltoa ere konkistatu gura du, lurreta Hiri Proban

Domekako lasterketan Euskadiko Txapelketa irabazteko hautagai nagusia da. Sasoi betean dago eta urtea hasi denetik Bizkaiko eta Euskadiko txapelak jantzi ditu krosean

KORRIKA • J.D.

Urtarrilean Berrizen eta martxoan Ordizian, Bizkaiko eta Euskadiko txapeldun geratu zen hurrenez hurren krosean David Garcia. Asteburu honetan, errepidean ere Euskadiko Txapelketa irabazi dezake. Bera da hori lortzeko hautagai nagusia domekan lehiatuko den lurretako Hiri Proban.

Izan ere, lur gainean ez ezik, asfaltoan ere bikain dabil duran-garra. Orain hiru asteburu 39. tokian amaitu zuen Laredoko proba prestigiotsua. Lasterketa hark lurretakoaren distantzia bera du: 10 kilometro. Hauxe izan zen bere denbora: 30.28. Minutu erdi geroago helmugaratu zen lurretan aurkari nagusienetakoa izango

duen Aitor Etxeberria donostiarra. Martin Amilibia eta Xabier Lukin korrikalariek ere eman dezakete zeresana, azkenaldiko euren emai-

lurretakoaren distantzia bera duen Laredoko proban aurrean amaitu du oraintsu Garciak

Emakumeetan, Elena Silvestre eta Sara Alonso dira txapeldun geratzeko hautagai nagusiak

tzak ikusita. Emakumeetan, Elena Silvestre —21. postua Laredon— eta Sara Alonso dira Euskadiko txapeldun geratzeko apusturik sendoenak.

5 km-ko proba, berriro

Nagusien lasterketa 12:10ean hasiko da, domekan, Maspen. Helmuga Askondoko aterpean jarriko dute. Ibilbidea aurreko urteetako bera da. Aurten bost kilometroko lasterketa berreskuratuko dutela da nobedade nagusia.

Nagusien probaren aurretik, bost urtetik gorako lasterketak hasiko dira. 10:40an, kadeteak abiatuko dira. Ordutik aurrera, adinka banatuta irtengo dira gazteen mailako korrikalariak.



David Garcia Bizkaiko txapeldun geratu zen Berrizko krosean, urtarrilean.

Euskadiko txapelketa lehiatuko dute aurten Durangoko duatloian

150 parte-hartzaile izango ditu eta euskal zirkuituko duatloilaririk onenetakoak etorriko dira

DUATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Gorka Uribeetxebarriaren Oroimenezko Durangoko XII. Duatloia indartsu dator domekan. Modalitateko kirolaririk onenak batuko ditu aurtengo aldian, Euskadiko Txapelketa ere izango delako.

Aurten, arratsaldean egingo dute nagusien proba, Ezkurditik

hasita. Esprint luzeko modalitatekoa izango da. 5 kilometro korrika —zirkuituari itzuli bi—, 20 kilometro bizikletan eta beste 2,5 korrika egin beharko dituzte.

Faboritoak

Guztira, 150 parte-hartzaile izango ditu duatloiak. Gizonetan, euskal

zirkuituan bigarren eta hirugarren dauden Erik Sandonis eta Bersoitx Odriozola etorriko dira. Emakumeetan, Itsaso Gangotia zirkuituko liderrak ere parte hartuko du.

Mugarra Triatloi taldeak —duatloiko antolatzaileak—, 11 parte hartzaile izango ditu eta Zaldibarko Zaldutri taldeak, bi.

ORDUTEGIA

- **10:30-11:15** Umeen duatloietarako izen-ematea.
- **11:30** Umeen duatloiak: Benjamin aurrekoak, benjaminak, kimuak, eta haur kategoriakoak.
- **16:15** Nagusien duatloia emakumeetan.
- **16:30** Nagusien duatloia gizonetan.
- **Hasiera eta amaiera** Ezkurdin.

Jokaldia

Unai Zamalloa
Zubiaurre
Saskibaloia



Mad Marchness

Titularreko bi hitz horiek Estatutu Batuetako unibertsitate-saskibaloia dagozkio eta egun hauetan jokatzeko diren partidu piloari egiten diete erreferentzia. Hilabete osoan zehar eta 64 talderen artean jokatzeko, *Final Four*-erako sailkapena lortzeko. Aurten Minneapolisen izango da, apirilaren 6tik 8ra, eta Michigan State, Texas Tech, Virginia eta Auburn taldeek jokatu dute.

Era berean, laster, Gaistezen Euroligako *Final Four*-a ere jokatu da. Maiatzaren 17tik 19ra bitartean, Gasteiz Europako saskibaloia hiriburu bihurtuko da.

Bitartean, gure taldeak burubelarri ari dira denboraldiko momentu garrantzitsuenean. Zornotza hor dabil, bere gora beherekin, *play-off*-etan sartzeko lehian. Egia esan, zaila egiten ari zaio aurten, baina taldeak ez dio lana egiteari utziko. Hurrengo partida HLA Alicante liderraren aurka du, Alacanten. Zaila, baina borrokatuko dena.

Tabirakoko mutilen talde nagusiak, Loiola Indautxuren aurka azken momentuan irabazi ondoren, Atletico San Sebastian taldea izango du aurkari asteburu honetan. Gureak hirugarren postuan daude, eta donostiarrak, laugarrenean. Beraz, partidu gogorra eta garrantzitsua Donostian jokatu dute.

Tabirakoko nesken taldeak CBSI Vitaldent talde gasteiztarren aurka jokatu eta puntu bategatik lortu zuen garaipena joan zuen asteburuan. Sailkapenari begiratu, ez zen aurreikusten partidua hainbeste konplikatzeko, baina horrela gertatu zen. Asteburu honetan, Barakaldo liderraren aurka jokatu dute. Gogor, neskak!

Ia gure taldeak *Final Four* guztiak jokatzeko sailkatzen diren. Animo eta aurrera!

Umeen eta nagusien probak banatu dituzte

Iaz, umeen eta nagusien probak bata besteari jarraian egin zituzten, eta umeena gura baino oharkabeago igaro zela uste dute antolatzaileek. Horrela, umeen proba ikusgarriago egiteko, banatu egin dituzte aurten. Umeena goizean izango da, eta nagusiena, arratsaldean.

Mendiko Saria sortu dute nagusietan

Nagusien duatloia pizgarri berri bat gehitu diote aurten: Mendiko Saria. 20 kilometro dituen bizikleta ibilbideko zati aldapsu bat arinen egiten duenari emango diote: hain zuzen, Iurretako Larrakozelaia futbol zelaitik Oizerako bidegurutzerainoko tartea arinen egiten duenari. Irabazleak opari poltsa bat jasoko du amaieran.



Asteko kirolaria

“Motibatuta eta sasoi onean nago; lan eginda gauzak lortu daitezkeela badakit”

Espainiako Kopako sailkapen nagusia irabazi berri du Markel Rodriguez abadiñarrak

Espainiako Kopako azken jardunaldia jokatu da asteburuan, Valentzian. Illart Zuazubiskar eta Markel Rodriguez protagonista izan dira. Jubenil mailan Rodriguez irabazi du Kopa.

Espainiako Kopa irabazi berri duzu. Zer moduz joan ziren asteburuko lasterketak?

Hasieran ez ginen oso ondo ibili. Proba guztietan puntuak batzea zen helburua, hau da, lehenengo bosten artean sailkatzea, baina

lehenengo proban, puntuaketan, ezinezkoa izan zen. Kanporaketan, oster, irabaztea lortu nuen. Madisonean erorikoa izan nuen lasterketa hasieran, eta, beraz, txarto hasi ginen. Hala ere, bigarren postuan amaitzea lortu genuen Telmo Senperenak eta biok. **Kanporaketan, sasoi onean zaude-la erakutsi zenuen, proba nagusitasunez irabazita.**

Egia esan, ez da nire probarik gogokoa. Orain arte, ez zait proba hau ondo irten. Baina zortea alde-

ko izan nuen, selekzioa kideek asko lagundu zidaten eta horrek guztiak amaierara indarragaz hel-tzen lagundu eta erraz irabaztea lortu nuen.

Madisonean, azken unean galdu zenuten urrezko domina. Hala ere Senperenagaz bikote indartsua osatzen duzula erakutsi zenuen.

Sarritan parte hartu dugu elkarre-gaz, eta oso gustura aritzen naiz. Primeran konpontzen gara biok, belodromoan zein pistatik kanpo, eta hori abantaila handia da.



MARKEL
RODRIGUEZ HOLGUIN

Abadiño, Txirrindularia

Aste Santuan Espainiako Txapelketan izango zara. Kopa irabaztea presioa ala motibazioa da?

Motibatuta eta sasoi onean nago; lan eginda gauzak lortu daitezkeela badakit. Hala ere, txapelketa guztietan izaten da presio puntu bat. Beraz, lasterketa horretan ere nabaritu dute presio apur bat.

FLORA DENDA

Atxondoko supermerkatua eskualdatzen da, jabea jubilatuta egiten delako. Herriko denda bakarra da eta zabalik dago gaur egun. Interesa izanez gero deitu 94 658 20 21 telefonora



ALDEKOA-OTALORA iturgintza
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
info@aldekoaotalora.com - 692 859 779
Zubiaurre, 8 **IURRETA** - 946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO** - 944 071 791

CERAMICAS MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727



Botikak	
BARIKUA, 5 - 09:00-09:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 8 - 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 6 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 9 - 09:00-09:00
09:00-13:30	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	EGUAZTENA, 10 - 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	09:00-22:00
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	EGUENA, 11 - 09:00-09:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
09:00-14:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DOMEKA, 7 - 09:00-09:00	
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Udane, Izar eta Ibaia (756. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta
zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko
txartela gura duzuenean jaso dezakezue
lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga,
9an.

Zorionak, **Xabier**.
Apirilaren 5ean
hainbat urte
betetzen dituzulako
musu handi bat ama
eta Amanen partez.
Maite zaitugu.

Zorionak, **Izaro**!
...12 urte! Muxu
handi bat etxeko
guztionez partez.

Zorionak, **Inhar**!
Disfrutau zure
urtebetetze egunaz.
Besarkada handi
bat!

Iparrek eta Paulek
urteak betetzen
dituzte apirilaren
6an eta 9an.
Zorionak eta mosu
handi bat etxekoan
partez.

Zorionak, **Ane**! Igandean
betetzen dituzu urteak. Jarraitu
horrela, jatorra, alaia eta
arduratsua izaten. Maite zaituen
familia guztiaren partez.

Apirilaren 7an,
Maddi 8 urte beteko
ditu. Zorionak,
poxpolin, Abadiñoko
eta Oromiñoko
famiaren partez!
Yee haw! Jarraitu
holako jator eta alaia
izeten!

Zorionak, **Maddi**,
zure hamargarren
urtebetetzean aitite
eta amamaren
partez.

Katalamixoneko hezitzaile
gaztiena be goruntz doie.
Zorionak, **Alex**! Ondo ondo
pasau egune eta Matixenako
jaixetan ospatuko dogu.

ALBERDI HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO • TEL.: 946 817 658 • SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA • TEL.: 946 308 722

“1 Formulan duten informazio osoa dugu slot lasterketetan; dena dugu monitorizatuta”

Scalextric modura ezagutzen diren slot kotxeekin lasterketak egiteko zirkuitua zabalduko dute apirilaren amaieran, Matienan (Abadiño), Mikeldi Slot Klubaren eskutik

Jesus Rodriguez Santamaria (Durango, 1967)
Pedro Azurmendi Etxarte (Durango, 1960)
 • Mikeldi Slot Klubeko kideak

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Urrunetik gidatutako kotxeak utzi ostean heldu zion slot munduari Pedro Azurmendik. “Arnasa hartzeko modu bat” izan zuen, eta Durangoko Asier Azkarragaz eta Galdakaoko Pedro Amogaz L Racing kluba sortu zuen. Slot kotxe lehiaketetan hasiberriak ziren orduan. Hor du jatorria Mikeldi Slot Klubak. Lagun talde horretakoa da Jesus Rodriguez motorzale amorratua ere, slot kotxeak gidatzen ez dituen arren. Urte hauean, Amoren baserrian sortutako ‘Peter’s Ring’ zirkuituan jardun dute lasterketetan.

Zein da Mikeldi Slot-en helburua?

Jesus Rodriguez: Jendartean scalextric modura ezagutzen den slot-a sustatzea. Zaletasun polita da, ikusgarria batzuetan. Prestaketa eta denbora eskatzen ditu, baina poz handia ematen du.

Pedro Azurmendi: Kotxea doitzak eskulana sustatzen du. Kotxea nola dagoen muntatuta, hala ibiliko da pistan.

Ume-jolasa dela esan dizute?

P.A.: Scalextric-ean jolasten garela esatean, normalena da pentsatzea ume garela betiko, baina informazio faltagatik da. Slot klub bat ezagutzean, egiten diren lasterketek erreparatuz gero, ikusten da ez dela jolasa, lehia baino. Lehia osasuntsua. 1 Formulan duten informazio osoa dugu slot lasterketetan; dena dugu monitorizatuta: lasterketako denbora, bueltarik azkarrera, gidarien buelta kopurua,

zein izan den bueltarik onena, zein txarrena...

1 Formulako pista bat maila txikira ekarritakoa da zuena.

P.A.: Bai. Benetako kotxeak dira, 1:32 eskalara ekarrita. Honetan gabiltzan denoi gustatzen zaizkigu autoak eta auto lasterketak. Ez dugu lasterketetan gidatu, baina alternatiba bat bilatu dugu.

J.R.: Etxean errazago sartzen dira!

Nondik datorkizue zaletasuna?

J.R.: Beti gustatu izan zait automobilismoa. 19 urtegaz, Jerezera joan nintzen, 1 Formulako Sari Nagusira, bakarrik. Ayrton Sena ikusi nuen.

P.A.: Ni ere txikitatik erakarri izan naute kotxeek. Irrati kontrolaren munduan aitaren eskutik sartu nintzen, hegazkinekin hasieran. Gero, kotxeekin.

Zaletasun garestia da?

P.A.: 50-60 eurogatik, lehiatzeko moduko slot autoa duzu, gero premien arabera doitu duzuna. 300dik gora ditut, eta bi ezik beste guztiak erabiltzen ditut.

P.A.: Auto miniaturen bildumak ditut nik; Carlos Sainzen kotxe

Berba bitan

• **Kotxe bat?**

Jesus: Ferrari 288 GTO (1984)

Pedro: Porsche 917K

• **Pilotu bat?**

Jesus: Gilles Villeneuve

Pedro: Jim Clark

• **Pelikula bat?**

Jesus: Grand Prix

Pedro: Le Mansko 24 Orduak

• **Bidal bat?**

Biak: Spa Francorchamps (Belgika)

Lau hortza

Alina
Ahtamon
Medikua



Animaliak

‘Animalia sentitzeko eta berez mugitzeko gauza den izaki bizia da’. Hori dio Euskaltzaindiak bere web orrian ‘animalia’ hitza bi-latzerakoan. Orain dela 2 aste “umezurztegi” batetik txakurra adoptatu nuen eta Serena izena eman nion. Lehenengo egunean oso lotsati zegoen: ez zuen jaten, ez zuen ondo lo egiten, eta ez zuen zaunkarik egiten. Apurka-apurka niregana hurbiltzen hasi zen, bere janaria jaten eta gero eta zaunka gehiago egiten. Gaur, bi aste pasatu ondoren, Serena lo egiteko baino ez da gelditzen, alde

Animaliak gara guztiok, eta sentitzeko, jateko eta ugaltzeko funtzioak dauzkagu, baina pozik bizitzeko eskubidea ere bai

batetik bestera eta nire gainean saltoka dabil eta gure etxean gehien jaten duena da. Gauza horiek guztiak ordainezinak dira. Bi aste hauetan, ume adoptatuengan egon naiz pentsatzen; umeek ere badute Serenak izan duen prozesu bera, egokitze prozesua, baina, aldi berean, pentsa ezazue zelako poztasuna eman ahal diezaiokezen ume horri. Animaliak gara guztiok, eta sentitzeko, jateko eta ugaltzeko funtzioak dauzkagu, baina pozik bizitzeko eskubidea ere bai.



DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona** eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitez!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.

www.sukia.com